

ANALISIA:
Irango iraultza amaigabea

DABID LAZKANOITURBURU > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Hauteskundeak

PELLO OTXANDIANO > 11

2019ko otsailaren 16a | XIII. urtea • 608. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

BILBO EGIN ZUTEN EMAKUMEAK

> 12 © F/ EULALIA ABAITUA. Bilduma Colección Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco



**Analisia: Irango iraultza
amaigabea** 04

**Venezuela, estraperloa eta «giza
laguntzaren» inguruan joko
ankerra** 09

**Bilboko emakumeei begirako
bidaia historian zehar** 12


Sarean 18

**Elkarrizketa: Juan Duran de la
Colina** 22

**Miguel Gonzalez de San Roman,
pintatzen hasi baino lehenagotik
hasten den artea** 26

In fraganti: Gorka Basterretxea 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Ezkerrak epe
luzeko begiradaren beharra du

10 **Oier Gorosabel:** Haurdunen
ziatika (artikulu analgesikoa)

11 **Pello Otxandiano:**
Hauteskundeak

16 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Nitro martxa sartuta

21 **Joana Garmendia:** Kalaportuko
lore hiztunak

25 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Lanaren prezioa

25 **Joxean Agirre:** Logofobia

30 **Ana Elozegi Serna:** Aurrera
neskak, baina nora?



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Ezkerrak epe luzeko begiradaren beharra du

Egunotan hiru aldiz munduko xake txapel-dun izan zen Vladimir Kramnik errusiarrak bere ibilbide profesionalari amaiera ematea erabaki du. Pena da. Oraindik ere eliteko jokalarari hoberenetakoa zen; ziurrenik, bera izango da gaur egungo xake estratagarik hoberena. Oso azterketa finak egiteko gaitasuna du Kramnik-ek eta azterketok baliatuta jokaldi oso gutxiarekin partidaren nondik norakoak definitzen ditu. Zaleok xakearen harribitxi diren jokaldiok galduko ditugu.

Bat-batekotasuna nagusi den garaiotan estrategia izatea ez da gehiegi estimatzen. Erantzun azkarak, denen ahotan egotea askoz gehiago balioesten da, gauzak zertarako egiten diren argi ez badago ere. Xakeko estrategia partida bakarrean amaitzen da. Politikan, aldiz, estrategiak beste erritmo eta denbora batzuk ditu. Hori nahiko argi gelditu zen orain dela egun batzuk Estatu espainoleko egunkari batean Steve Bannoni egindako elkarrizketan. Esaten dutenaren arabera, Bannon izan zen Donald Trumpen kanpainaren estrategia nagusia eta berari esker lortu zuen hauteskundeak irabaztea. Elkarrizketan, besteak beste, esaten du Tea Party mugimendua izan zela oinarria lehendabizi Alderdi Errepublikanoa konkistatzeko, eta, ondoren, Trump bezalako presidente bat hautatzeko. Egia da Tea Party Barack Obamaren lehendakartzaren hasierarekin batera osatu zela, eta, hainbat kontutan –zergen gehiegizko pisua, Obamacare egitasmoaren kritika eta aurrekontu oreka adibidez–, eztabaida politikoa baldintzatu zuela. Mugimendu hori noraino izan zen erabakigarria eztabaidagarria izan daiteke, hala ere, Bannonek paralelismo bat egin zuen Estatuko egoerarekin. Bere iritziz, Tea Partyren antzera, Estatuko alderdi garrantzitsuen Vox da egun, eztabaida politikoa nondik norakoak markatzeko gai delako. Momentuz, arrazoia eman behar zaiola dirudi.

Zaila da esatea Tea Party sortzea aurreikusitako mugimendua izan zen edo Bannonek esaten duena ondoren osatutako kontakizuna den. Edozein kasutan, adibideak argi uzten du eskuin politikoak bere helburuak oso epe luzeko perspektiban zehazten dituela. Gaur egun politikoki eta ideologikoki jaun eta jabe den neoliberalismoa Bigarren Mundu Gerra bukatu bezain pronto hasi zen oinarriak ezartzen bere proiektu politikoa hegemoniko bihurtu zedin. Mont Pelerin elkarte osatu zuen Friedrich Hayek ekonomistak 1947an, Suitzako enpresari baten finantzazioarekin. Elkarteko gonbidapen gutunean Hayek berak horrela definitzen zuen ezarrita zuten helburua: «Gure ahaleginak epe luzekoa izan behar du. Gure kezka ez da izan behar uneotan egingarria dena, baizik eta zer ideia eta iritzik lortu behar duten nagusitasuna».

«Gure ahaleginak epe luzekoa izan behar du. Gure kezka ez da izan behar uneotan egingarria dena, baizik eta zer ideia eta iritzik lortu behar duten nagusitasuna»

Ildo horretan, Hayek-ek ideien borrokan posizio gerra bat hastea planteatu zuen. 30 urte behar izan zituen Hayek-ek bere doktrina praktikan jartzeko, hasieran Txilen Pinochet-ekin, ondoren AEBetan Reagan-ekin eta Erresuma Batuan Thatcher-ekin. Esperimentuon emaitzak kaskarrak izan ziren, baina, egun, 80 urte geroago, esparru ekonomikoan behintzat, beraiek bultzatutako ideiek osatzen dute “zentzu ona”; eztabaida ekonomikoaren norabidea definitzen dute ideiak, Kramnik-ek xake taulan egiten zuen moduan. Ezkerrarentzat, egungo “zentzu on” neoliberalak pitzatzen hasteko, gero eta lehentasun handiagoa du epe luzeko perspektibarekin aritzeak, egingarria denari baino ideien borrokari begiratzeak. •

{ analisis } **Dabid Lazkanoiturburu**

Irango iraultza amaigabea

Norberaren hautu ideologikoak albo batera utzita, Mexiko-ko, Errusiako eta Kubako iraultzekin parekatu daitezke Iranek 1979an bizi izan zituen gertakariak. Alde bate-
tik, herrialdearen barne egi-
tura erabat aldatu zuelako
iraultzak, eta, bestetik, ingu-
ruko zonalde estrategikoaren
politika eta oreka geopoliti-
koak hankaz gora jarri zitue-
lako. Ordura arteko Ekialde
Hurbila ez da, jada, existi-

40 urte igaro dira 1979ko
otsailaren 11 urrun hartan,
Persiako egutegian
«Bahman»-en 22an, Irango
iraultza nagusitu zenetik.
Une historikoa, munduan
emandako lehen iraultza
islamikoa izan zelako.

tzen eta orduko ezstandaren
ondorioek luzaroan izan du-
te –eta dute, oraindik– eragi-
na mundu osoan. Eta egun
Ekialde Hurbilean bizi diren
gatazkak, gerrak eta tirabirak
ezin dira ulertu Irango bila-
kaera, eta ondorioz bilakaera
horren jatorria, kontuan har-
tu gabe.

Ezin da ahaztu, gainera,
Irangoa iraultza islamikoa
izan zela; hau da, islamaren
izenean, eta islamaren men-
pe, lehen aldiz gauzatu zen
iraultza bat munduan. Gu-
txiengo den eta ia-ia isla-
maren hasieratik gutxietsia
izan den korrante xiitak egin
zuen, bai, baina lurrikarak
eragina izan zuen islam suni-
tan ere, eta, bere barnean,
baita Anaia Musulmanengan
eta ondoren sortuko ziren
talde jihadistengan ere. Pa-
lestinako mugimendu aska-
tzaileengan izandako eragina
ere ezin da ahaztu, noski.

**Edozein iraultza aztertze-
ko orduan aurrekariak albo ba-
tera uzteko joera dago, ger-
taera politiko arruntak baili-
ran. Baina iragana ahazten
baldin badugu ez dugu gerta-
tutakoa ulertuko, ez eta uler-
taraziko ere; zergatiak eta
nondik norakoak ez ditugu
ezagutuko. Horrela, bada,
1979ko iraultza ez dago uler-
terik II. Mundu Gerrak bere
hondakinen artean utzitako
kolonialismoaren aurkako
borroka, eta Mendebaldeko**



Emakumeek parte hartze zuzena izan zuten Irango iraultzan. GARA

inperialismoaren erantzun bortitza, kontuan hartu gabe.

Talka horrek Iranen ere izan zuen isla. Garai hartako Reza xah edo erregeak (antzinatik xah tituluarekin ezagunak ziren Irango erregeak) abdikatu eta lekukoa Mohamed Reza Pahlevi semeari pasa behar izan zion. Aita Hitlerren aldekoa zen eta nazien armadari herrialdean sartzen utzi zion, Sobietar Batasuna inbaditzeko herrialde persiarra base militar modura erabil zezan. Britainia Handia metropoliko armada eta Sobietar Batasuneko Armada Gorria Iranen sartu ziren, baita hurrengo hamarkadetan ezinbesteko bihurtuko zen hirugarren aktore bat ere: Ameriketako Estatu Batuak.

Teherango eta Jaltako konferentzietan munduaren kontrola beraien artean nola banatu erabakitzeko bildu ziren Stalin, Roosevelt eta Churchill. Horrela, bada, Irango Iparralde (Kurdistan eta Hegoaldeko Azerbaijan) sobietarren esku geratu zen, eta erdialdea eta hegoaldea Londresen menpe. Baina AEBak xah berria eta bere gobernua kontrolpean hartzen saiatu ziren, Irango Armada eta Jendarmeria berriak trebatzeko aholkulari militarrek bidaliz (Teheran eta beste hiri batzuk ez zeuden militar arrotzek okupatuta).

Sobietarrek Azerbaijango eta Kurdistango subiranotasun nahiak baliatu zituzten Mos-



Irango Qom xiiten hiri santuan ateratako irudia; klerikoak bazarretik pasioan ikus daitezke. ATTA KENARE | AFP

kuren influentzia garatzeko. Gainera, Tudeh alderdi komunista Ekialde Hurbil osoko indartsuena zen eta hiru milioi kide izatera iritsi zen (ikusiko dugun moduan paper garrantzitsua izango zuen 1978-1979ko iraultzan).

Hala ere, Mendebaldeak zuen Iranen gaineko azken hitza eta bere aberastasunik handiena, petrolio, Britainia Handiko Anglo-Iranian Oil Company (AIOC) enpresaren eskuetan zegoen. AIOC konpainiak British Petroleum izena hartuko zuen 1954an.

Garai haietan, eskuinaren eta Tudeh alderdi komunisten artean mugimendu abertzale irandarrek ere indarra hartu zuten, tartean Mohamed Mossadeq politikariak gidatzen zuen Fronte Nazio-

nala, hauteskundeak irabazteraino heldu zena. Mossadeq lehen ministro izendatu zuten eta 1951ko martxoan petrolio industria nazionalizatu egin zuen.

Britaniarrak sutan zeuden eta itsasontzi militarrek bidali zituzten eskualdera, Iranen aurkako boikot ekonomikoari hasiera emanez. Auzian estatubatuarren neutraltasuna espero zuten irandarrak etsita geratu ziren Washingtonek Londresen alde egin zuenean. Ondo zekien Washingtonek britainiar itsas-inperioa iraganeko kontua zela eta horren fruituak berak jasotzea denbora kontua besterik ez zela. Behin eta berriz saiatu ziren xah eta AEBek trebatutako militarrek Mossadeq kargutik botatzen, baina lehen ministroaren aldeko manifestazio erraldoiekin topo

egiten zuten. Hala ere, AEBetako CIA Inteligentzia Agentzia Zentralak prestatutako plan baten bitartez, azkenean, 1953ean, lortu egin zuten; lehendabizi, Mossadeq beraren eta Tudeh alderdiaren artean tirabirak sortu zituzten, gero sektore erlijiosoen artean atzerakoienak kalean mobilizatu zituzten, eta, azkenik, kolpe militarra etorri zen.


Irango petrolio Mendebaldeko enpresa kontsorzio baten eskuetan geratu zen, %40 AEBen esku. Orduan hasi zen, Washingtonen gidaritzapean, xah ahalguztidunaren erregetza diktatoriala, 25 urte luzeko errepresio bortitzari atea irekiz. Savak polizia politiko beldurgarriaren errepresioak, baina, oposizio guztia biltzea lortu zuen.

Mossadeq lehen ministroaren gobernu abertzalearen

aurkako erasoak eta AEBen paper inperialistak irandarrengan sortu zuen gorrotoa 1979ko iraultzaren aurrekariak dira, noski, baina gutxienez beste bi elementu ere hartu behar ditugu kontuan iraultzak hartuko zuen norabidea ulertzeko, norabide islamista hain zuzen.

Alde batetik, ez ziren 70eko hamarkadaren bukarakoak Sobietar Batasunak gidatzen zuen «sozialismo errealarentzat» garai onenak, hamar urteren buruan sistemaren porrotak agerian utziko zuen moduan. Aitzitik, islam politikoa, bere forma eta aurpegi guztiekin, indartsu zetorren. Armada Gorria 1979. urtean bertan Afganistanen indarrez sartu zen eta Umma edo mundu musulmanaren izenean mujahidinek, eta orduan sortu zen Al-Qaedak, aurre egin zioten –askoren ustez, “Sobietar Batasunaren Vietnam” bihurtu zen Afganistango gerrak azkartu zuen bloke sozialistaren porrot historikoa–.

Bestetik, Iranen nagusi den islam xiitak, bere bilakaera historikoaren haritik, zapalduak eta txiroak ordezkatu izan ditu, batez ere azken mendeetan. Mahoma hil eta ondorengo kalifa herriaren barneko liskarretan ondorengotza dinastikoa aldarrikatzen zutenek (xiitek) galdu egin zuten *sunna* (tradizioa)



Ruhola Khomeini
aiatola, Parisko
Neauphle-le-Chateau,
erbestean.
JOEL ROBINE | AFP

bere egiten zutenen aurka (sunitak). Horretxegatik, eta orrialdeotatik kanpo gertatzen diren beste auzi teologiko-doktrinarioak tarteko, xiismo politikoa baita galtzaileen defentsa sutsua egin duten teoriko ugari izan dira, Iranen batez ere. Ali Shariati izan zen horietako bat –bere eragina Ruhola Khomeini aiatolak izan zuenarekin parekatzen da– eta bere idatziek sekulako oihar-

tzuna izan zuten Irango iraultzan.

Iraultzaren ataurretzat jo daitekeen 1963ko matxinadan, errepresioak ehundik gora hildako eraginez amatu zituen protestetan hain zuzen, islam xiitaren papera nabarmena izan zen jada, Khomeiniren gidaritzapean. Gatozen, baina, 1978tik 1979ra bitartean Iranen, eta batez ere Teheranen, gertatu zena aztertzeraz. Khomeini er-

bestean zegoen 1964tik. Lehenengo Turkian, gero Iraken, eta, 1978tik, Parisen, Gobernu frantsesak babestuta.

Ordurako oso indartsua eta askotarikoa zen xah ahalguztidunaren aurkako oposizioa. Borroka armatua erabiltzen zuten gerrillak ere bazeuden. Fedajinek marxismoa zuten oinarri eta Che Guevara eredu; hala, Tudeh alderdi komunista ofizialaren nolabaiteko korronte edo eszisioa osatu zuten, laster bi taldeetan zatitu baitziren. Mujahidinek, berriz, erlijio xiitaren mezu berdinzalea eta marxismo-leninismoa uztartzen saiatu ziren, asmo horrek ere gerrilla bi zatitan banatzea eragin zuelarik.

Oposizioa, hala ere, ez zuten borroka armatuan ari zirenek soilik osatzen. Tudeh alderdi indartsuaz aparte, beste hainbat mugimendu ere bazeuden, liberalak, abertzaleak, eta, nola ez, baita kurduak eta azeriarrak ere.

Mugimenduak mugimendu, erregimenak berak indartu zuen islamisten aitzindari-tza 1979ko iraultza ahalbidetu zuen sua piztu zuenean. 1978ko urtarrilean Khomeini iraintzen zuen artikulua bat idatzi zuen egunkari baten orduko Informazio ministroak. Qom hirian, xiiten hiri santuan, seminariotako ikasleak kalera atera ziren aiatolaren izen ona aldarrikatzeko eta errepresioak 70 hildako

Iraultza islamikoa eta Iran



■ **1979ko otsailaren 11:** Xahren erregimenak, AEBen babesa duenak, porrot egingo du Ruhola Khomeini aiatola (goian) Parisetik itzuli eta 10 egunera. Apirilaren 1ean Errepublika Islamikoa jaioko da.

■ **Azaroaren 4a:** Bahituen krisia. Khomeiniren aldeko ikasleek Teherango AEBetako enbaxadan sartu eta 62 diplomazialari eta "langile" bahituko dituzte. 444 egun iraungo du krisiak.



■ **1980-1988:** Irak-Iran arteko gerra: AEBek burua berotuta, Saddam Hussein Irakeko buruzagiak Iran inbaditzeko aginduko du. Zortzi urteko gerrak 500.000 hildako eragingo ditu. Hasieran kolpe latzak jasan ondoren, Iranek, milaka gazte martirirekin, Irakeko Armada garaituko du.

■ **1983ko urria:** Hezbollahk Libanoko hiriburuan AEBetako egoitza militarrei bonbaz eraso, eta 241 marine hilko dira.



■ **1989:** Kontserbadore pragmatikotzat duten Akbar Haxemi Rafsanjani presidente bilakatu da. Kleroaren eta erreforma-zaleen artean zubiak eraikitzen saiatuko da.




■ **1995:** Bill Clinton orduko AEBetako presidentek Iranen aurkako finantza eta merkataritza blokeoa aginduko du, Teheranek "terrorismoa babesten" duelakoan.



■ **1996ko ekaina:** Hezbollahk AEBek Saudi Arabiako Dhahran hirian duten Aire Indarraren egoitzari eraso egin eta 19 estatubatuar hilko dira.

■ **1999:** Mohammad Khatamiren eta indar printzipalisten arteko talkak protestak eragingo ditu teokrazia amaitzea nahi dutenen artean.



■ **2002:** George W. Bush orduko AEBetako presidentek "estatu gaizkileen" zerrendan sartuko du Iran, Irakekin eta Ipar Korearekin batera. "Terrorismoa" babesten duela ez ezik, Irango arma nuklearren ustezko programa aipatzen du.



■ **2005-2013:** Mahmud Ahmadinejadek hauteskunde presidentzialak irabaziko ditu. Klerikoa den arren, printzipalistekin bat egingo du erlijio kontuetan, baina bazarreko liberalismoaren aurrean politika herrikoien defendatzailer gisa aurkeztuko da.

■ **2009:** Ahmadinejaden garaipena iruzurtzat jotzen dute erreformistek eta "iraultza berdea" hasiko da. Erregimenak eutsi egingo dio eta nazioartean Yemengo auzian parte hartuko du matxino hutiei babesa emanaz. Iran eta Saudi Arabiaren talka-gune bihurtuko da Yemen.



■ **2011:** Sirian matxinadari erantzunez, Iranek bere Guardia Iraultzailea bidaliko du Baxar al-Assaden erregimena boterean mantentzeko.

■ **2012:** Hezbollah-k Siriako gerran zuzenean parte hartuko du, Iranen agindupeko beste milizia xiitekin batera.



■ **2013:** Barack Obama AEBetako presidentek eta Hassan Rohuani hautatu berriak telefonoz hitz egingo dute, hiru hamarkadatan izango den goi-goi mailako lehen kontaktuan.

■ **2015:** AEBek eta gainerako potentzia nuklearrek Iranekin akordioa sinatuko dute. Iranen aurkako zigorrak kentzen hasiko da Washington.



■ **2018:** AEBetako presidentek akordio nuklearra hautsiko du. Horri erantzunez, Iranek bere misil balistikoen programarekin (ez nuklearra) jarraituko du.

eragin zituen. Oposizio erlijiosoa indartzeaz gain, bere hondoratzea sinatu zuen orduan erregimenak.

Kleroak bazarretako enpresa gizonen eta dendarien babesa lortu zuen, eta *bazari* izenarekin ezagutzen ziren merkatarion jarrera politikoa, kontserbadorea baina bide batez Mendebaldearen aurkakoa, eragin handia izan zuen bai iraultzan bai iraultzaren ondoren.

Hala ere, Irango txiroenen parte hartzea gero eta nabariagoa zen manifestazioetan. Emakumezkoak ere ez ziren atzean geratu, alderdi ezker-tiarretan eta talde armatuetan mobilizatuta; bazarien emazteak, berriz, txador beltzarekin estalita agertzen ziren. Errepresioak gora egin ahala, manifestazioetan lehen lerroan jartzen ziren, poliziei desafio eginez.

Irailaren 8an, "Ostiral Beltza" izenarekin bataiatuko zutena, 900 manifestari erail zituen poliziak Teheranen. Armadak herritarren aurka tiro ez egitea erabaki zuen orduan, eta, urte bukaerarako, erregimenari egunak baino ez zitzaizkiola geratzen argi zegoen dagoeneko.

Reza Pahlevi xah urtarrilaren 16an irten zen herrialde-tik ihesi –AEBetan hilko zen handik gutxira, minbiziak jota– eta, otsailaren 1ean, Khomeini Iranera itzuli zen.



Teherandarrak,
bidegurutze bat
zeharkatzen.
ATTA KENARE | AFP

Guardia Inperialak azken saiakera bat egin zuen aldaketa ekiditeko kadete militar talde bat matxinatu zenean. Kadeteek erasoari aurre egin zioten eta gerrilla taldeek lagundu egin zieten. Otsailaren 10ean eta 11n jendetzak kartzeletako atea zabaltzeko zabaldu eta polizia etxeak eta kuartelak okupatu zituen. Herritarrak komiteetan antolatu ziren; mulla agintari erlijiosoak eta ezkerreko militanteak eskuz esku aritu ziren.

Teherango irratiak mezu historikoa zabaltzeko otsailaren 11n: «Benetako Iranen ahotsa duzue hau, iraultza islamiakoaren ahotsa». Gutxi iraun zuen baina batasunak eta, lau urteren bueltan, iraultza egin zuten talde gehien aurka gogor jo zuen Khomeinik, iraultza gero eta islamistago bihurtuz, iraultza

guztiek pairatzen duten Termidor aroa inposatuz.

Munduak Teherango AEBetako enbaxadako bahituen krisia bizi izan zuen 1979ko azaroaren 4tik 1981eko urtarrilaren 20ra, Iran inperialismoaren aurkako aitziindari bihurtu zuten 444 egun historikoetan, Khomeinik “Velayat i Faqui” izeneko sistema ezarri zuen (jakintsu erlijiosoaren agintea) eta xaria edo lege islamikoa inposatu zuen. Bere lehen gobernuak osatu zituzten erlijioso liberalek eta laikoek (Mehdi Bazargan lehen ministroa eta Abolhasan Bani Sadr lehen presidentea) agintea utzi zuten, eta askok erbestera jo zuten.

Apurka-apurka Khomeinik eta bere Errepublikak Islamikoaren Alderdiak bote-re guztia bereganatu zuten, iraultza garaian kide izan zi-

tuztenak suntsituz, lehenik bata besteari kontra jarritz –liberalak komunisten kontra, Tudeh alderdia talde ezkertiar armatuen aurka...– eta, azkenean, inolako barne oposizioarik gabe geratuz.

Hasieran aipatu dugun bezala, iraultza islamikoak hankaz gora jarri zuen zonaldeko geopolitika guztia. Iran AEBen etsai amorratua bilakatu zen eta Israelen aurkako “Erresistentziaren Ardatza” osatu zuen Siriarekin eta Libanoko Hezbollah erakundearekin batera 1981. urtean.

Washingtonen Iran erasotzeari ekin zion iraultzak irabazi eta biharamunetik, eta, Barack Obamak Teheranekin 2015ean sinatu zuen akordio nuklearraren parentesitik aparte, eraso horrek ez du etenik izan. AEBek, gainera, bere aliatuak diren arabiar erregimenek Irango

ereduari dioten beldurra, eta gorrotoa, baliatu du Iran gehiago estutzeko. Hala ere, eraso guztien gainetik, nazioartean, eta batez ere Ekialde Hurbilean, “Erresistentziaren Ardatza” mantentzea, eta zentzu baten indartzea lortu du Iranek Siriako eta Yemengo gerretan, zuzenean eta zeharka.

Dena den, irandarren artean adostasun zabala lortzen duen kanpo politikak ez ditu leuntzen iraultzak herrialdearen barnean bizi duen krisiaren zantzuak. Azken hamarkadotan iraultza-aren ostean gailendu ziren bi sektoreen arteko talkak gidatu du herrialdeko politika; alde batetik khomeinizale amorratua den klero printzipalista, eta, bestetik, klero erlijioso-liberala (erreformazalea). Talka horrek goraldi eta krisiak izan ditu,

1995ean Mohamed Jatami erreformazaleak hauteskundeak irabazi zitueneko edo 2009ko iraultza berdean kasu. 2018ko matxinadaren ostean, baina, Trumpen kanpo zigorrak eta barne ustelkeriak eraginako krisi ekonomiko latzaren erdian, badirudi herrialdea noraezean dela uneotan.

Iraultzak injustiziei aurre egin zien eta irabazi egin zuen. Gero, ohikoa denez, bere semeak irentsi zituen. Aste honetan 40 urte bete ditu. Mundu musulmanean zenbaki horrek heldutasuna adierazten du, adin hura omen zuelako Mahomak Alaren agerkundea izan eta Korana transmititzen hasi zenean. Ez ote den, ordea, Irango iraultza, eta ondorioz herrialdea, guztiz zaharkitu 40 urteotan... Zaharkitutako iraultza ala amaitu gabeko iraultza?



AFP



IKUSMIRA

VENEZUELA, ESTRAPERLOA ETA «GIZA LAGUNTZAREN» INGURUAN JOKO ANKERRA

Tienditas-eko zubiaren irudia da, Venezuela eta Kolonbiaren arteko mugan, eta Juan Guaidok irudikatzen duen oposizioak eta AEBek Nicolas Maduro Venezuelako agintariaren ankerkeriaren froga gisa aurkeztu dute, giza laguntza mugaz bestaldera iristeko errepidea itxi omen duela eta. Kontua da zubiak, eraikitzeko lanak 2016an amaitu zituztenetik, itxita jarraitzen duela. Ar-

gazkian ageri diren kontainerrak bai, egun hauetan jarri ditu Venezuelako Gobernuak, baina zuba sekula ez da zabalik egon. Baina zergatik segitzen du horrelako errepide batek itxita amaitu zenetik? Estraperloan dago horren arrazoia, bai gasolina (Venezuelan 4X4 bat betetzeak 50 zentimo euro balio du) bai jakien eta egunero erosketen merkatu beltzean. Venezuelen egoera ekonomikoa txarra dela zalantzarik ez dago, eta egoera horren erantzukizuna nork duen aztertzea ezin interesgarriagoa da. Baina, hori bai, jendearen ego-neza politikoki era ankerrean erabiltzea ez da inola ere bidezkoa. Ez hemen ez han. Dabid Lazkanoiturburu



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Haurdunen ziatika (artikulu analgesikoa)

Osasunaren gaia pazienteak bezain mugagabea da: kasu batek bestearen antza izan dezake, baina zure auzokoak «behin horrelako belauneko min bat» izan izanak ez du esan nahi zure belaunak arazo berbera duenik, ezta beraz hari emandako soluzioa (edo pronostiko txarra) zuretzat ere balekoa denik. Horrela, Izaro irakurleak haurdunaldiko ziatikei buruz idaztea proposatu zidanean, lehen unean gai hori jorratuta nuela pentsatu nuen: idatzi izan baitut bai haurdunaldiko arazoei buruz, bai ziatikei buruz ere. Baina bi bider pentsatuta, konturatu nintzen gai espezifiko honek (ziatika duten haurdunenak), berariazko artikulu baterako ematen zuela, bai horixe. Izan ere, haurdunen artean, ziatikarena izaten da kontsulta motibo nagusietako bat gurean.

Bestalde, artikuluak beldurraren mekanismoak desaktibatze ere balioko digu, aurreiritzi desegokiak deuseztatuz.

Duela gutxira arte, osagileen artean (ni neu barne) etsenplu desegokiak eman izan ditugu pazienteari bere arazoa azaltzerako orduan: esate baterako, sorbaldako kaltzifikazioa duen paziente batek, gure azalpen okerren ondorioz, hezur artean harri zorrotz bat zuela sinets zezakeen; bada, horren ondoriozko mugitze beldurrak, sendatze prozesua geldotuko zuen. Ziatika duen emakume haurdunaren kasuan ere, azalpen tremendista eta kezkarriak ekidin behar ditugu; zehatzak ez izateaz gain, ez dute laguntzen.

Has gaitzen Pernandoren egia batekin: haurdunaldia ez da gaixotasuna. Batzuetan, irakurtzen dugunarengatik, ematen baitu emakume haurdunak, berez, gaixo bezala tratatu behar direla! Ez da horrela. Umekia hazi ahala, haurdunaren gorputzak aldaketa handiak izaten ditu, ados:

hasteko umetokiak bere tamaina biderkatzen du; baina erraiek mugikortasun handia dute, eta leku egiten diote arazo barik. Bestalde, haurraren presentziak amaren gorputzaren grabitate zentroa aldatzen du, eta pelbisaren inguruko egiturek egoera berrian oreka aurkitu behar izaten dute. Kasu gehienetan hori ere arazo berezirik gabe gertatzen da, baina, batzuetan, aurretik zeuden muskulu eta artikulazio desorekengatik, egokitze prozesu horretan minak ager daitezke. Ziatikaren kasua da, non postura aldaketaren eraginez, ipurdiko muskulu batzuek hankara doan nerbio nagusia estutu dezaketen.

Egoera ez da gozoa, jakina (inori ez zaio minik izatea gustatzen). Gainera, batzuetan, beste egoera batean mina baretzen lagunduko luketen botika analgesikoak ezin izaten dira haurdunaldian erabili. Baina, era berean, lagungarria da jakitea ziatika mota honek ez duela inolako larritasun klinikorik izaten. Gai-

nera, pelbisaren baskula mugimenduarekin zerikusia duenez (samba dantzatzen edo larrua jotzen egiten den ipurdi-jokoarekin, alegia), mota horretako ariketek askotan nerbio ziatikoaren gaineko presioa arintzen dute, eta, ondorioz, hankatik behera doazen minak baretu egiten dira. Haurdunaldiaren fasearen arabera, ariketok postura desberdinetan egin daitezke, eta askotan besterik ez da beharko ziatika hobetzeko. Horrela ez denean, badira mina botikarik erabili barik hobetzeko moduak: fisioterapia, adibidez. Baina garrantzitsuen arazoarekin ez larritzea da: bai baitakigu haurdunaldiko ziatikak iraungitzepea duela, ez duela gerora ondorio kaltegarririk izaten eta erditu ostean bere onera etorri ohi dela. •



Haurdunen artean ohikoak izaten dira ziatika kasuak. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Hauteskundeak

Artikulu hau entregatzeko momentuan jakina da PSOEk Espainiako hauteskundeen aurrerapena iragarriko duela eta apirilaren 28an izan daitezkeela sumatzen da. Udaberrian beraz, udal eta foru hauteskundeen aurretik, nahiz eta ez diren baztertzen beste aukera batzuk. Gauza asko gertatu dira aste honetan, datozen urteetako dinamika politikoa norabidetu ditzaketen gertakariak kateatu dira. Egun gutxiren bueltan, katalan buruzagi independentisten epaiketa hastearekin batera, PSOEk aurrekontuak onartzeko izan zitzakeen aukera apurrak baztertu ditu, hauteskundeen aurrerapena iragarri du eta lasterketa elektoral nahasi eta erabakigarri baten aurrean jarri gaitu.

Zentzu askotan gerta daitezke erabakigarriak hauteskunde espainol hauek: eskuinaren mobilizazioa zertan gauzatzen den ikusiko da, gobernura iristen diren ala ez, eta inboluzio autoritarioak jauzi kualitatibo bat emango ote duen. Bestalde, hauteskundeotan bere etorkizun politikoa jokatzeko du Sanchezek, gobernua irabazi ezean paretik kendu nahi dutenek ez baitute aukera galtzen utziko. Baina hortaz haratago, datozen urteetan PSOEk hartuko duen norabidea finkatu dezakete hauteskunde hauek, Podemos indar sistemiko gisa ahuldu delarik ezkerrearen erreferente nagusia izatera jokatzeko duen ala beste hautu bat egingo duen, Ciudadanosekin batera zentro-liberal berri bat marrazten saiatuz.

Kataluniako azken urte eta erdiko dinamika politikoa ezkorrean ere eragingo dute hauteskunde emaitzek. Apirilean zein maiatzetan izan, espainiar legegintzaldi berri bat hasiko da Auzitegi Goreneko epaiketa bukatzeaz batera. Nahiz estrategia independentista bateraturik ez izan, sententziaren momentua inflexio puntu bat izan daitekeela uste dute askok, orain arteko dinamika baldintzatu dezakeena. Sententzia kondenatorio bat gertatzen bada eta eskuinak espainiar hauteskundeak irabazten baditu polarizazioa areagotuko dela aurreikus genezake.

Hiru hauteskunde hilabeteko denbora tartean. Zaila da igartzen nola gurutzatuko diren kanpaina lokala,

europarra eta espainola, zein eragin izango duen faktore estatalak, batez ere, foru eta udal hauteskundeetan. Edozein kasutan tenperaturak gora egingo du eta kanpaina *continuum* bizi eta nahasi bat aurreikus dezakegu.

HIRU HAUTESKUNDE PAKETE BAKARREAN

Ez dirudi eskuinari gobernua kentzeko behar duen indar posiziotik abiatzen duenik Sanchezek lasterketa elektoral hau. Atzoko egunez hauteskunde espainiarrak apirilean izango direla konfirmatu baldin bazen, PSOEren posizioa ahulduta ageri dela esango nuke. Zentzura mozioaz geroztik ez du alternatiba bat irudikatzeko gaitasunik erakutsi. Estatu-azuz nagusietan oso zaurgarri agertu da, sendotasunik gabe, eta, aurrekontuak onartu ezinda, zentsura mozioa aurrera atera zuen aliantza bideragarria ez dela frogatu da. Eskuinak hauteskundeak eskatzen zituen eta Sanchezek hauteskundeak deitzen bukatu behar izan du, bere asmoen kontra.

Zentralitatearen taktika jokatzeko saiatuko dela dirudi: independentistek aurrekontu sozialak eragotzi dituzte eta eskuina mendira igo da. Baina, nago indar gutxi duela horretarako. Podemosi Kataluniako 2017ko abenduako hauteskundeetan gertatu zitzaiona gerta dakioke: «*ni 155 ni declaración unilateral*» esanez zentralitatean kokatzen saiatu zen, baina alboak hain ziren indartsuak –independentismoa eta 155aren blokea– erdian zanpatua bukatu zuela.

Ikusteke dago dena. Hiru hauteskunde dira pakete bakarrean, faktore estatalak oso baldintzaturik. Agenda demokratizatzaile argi bat mahaigainartzeko momentua: erabakitzeko eskubidea, eskubide sozialak eta presoak. Euskal eta katalan subiranistok ezin dugu partida hau nork bere aldetik jokatu. Plano ezberdinetan sinkronizatu eta sintonizatzeko premia geroz eta handiagoa da, baita plano elektoralean ere. Estatu krisiak datozen urteetan izango duen kudeaketa eredu dago jokoan eta indar demokratikook erakutsi dezakegun sendotasunak soilik geldi dezake inboluzioa autoritarioa. •

PSOEk zentralitatearen taktika jokatzeko duela dirudi: independentistek aurrekontu sozialak eragotzi dituzte eta eskuina mendira igo da

BILBO EGIN ZUTEN EMAKUMEAK

Nerea Goti

Bilbo Handiaren garapenaren zati nagusi bat emakumeek eraman dute bizkar gainean. Emakumeoi begira mendeetan zeharreko bidaia egin du GAUR8k Marta Brancas Escartin historialari eta mugimendu feministako kidearen eskutik, Zazpikaleak zein Bilboko itsasadarra bete zituzten hamaika lanbide ezagutuz.

Ibaizabal ibaia eta Kantauri itsasoa batzen diren itsasadarra izan da historian zehar Bilboko garapena bultzatu duen zain nagusia: bertako urek lanbidez, gertaerez eta bi- zipenez bete dituzte ibaiertzeko moilak zein hiriaren barrualdeko lurrak. Aberastasuna, ideiak, bizimoduak, lanbideak, ahaleginak... garraia- tu dituzten ur horiei esker joan dira hazten Ibaiza- bal ibaiaren bi aldeetako ertzak, garai batean harre- situta zegoen herrixka txiki hura gaur egungo Bilbo Handia bilakatu arte. Bertako bizilagunak garaietara egokitzen joan dira itsasoaren barneraino sartzen den ur-mihiaren ondoan, mihi horretatik sartu eta ateratako guztiari esker. Hori bai, kontakizuna ez da oraindik bukatu.

Askotariko aldaketak izan dira historian zehar Ibaizabalen bi ertzetan. Itsasadarrean jazotako ger- taerez nahikoa jakin da dokumentu eta garaiko kro- nikei esker. Arrastoa, baina, lausoagoa da bertakoen bizimoduei erreparatuz gero, are lausoagoa familia, etxe eta lanbideen zutabe izandako emakumeen bi- zitzetara hurbildu heinean. Emakumeek garapena ekarri zuten Bilbo Handira lanbide askoren pisua sorbaldan, edota, buruan, testualki, hartuta. La Pe- ñaraino barneratzen den 15 kilometro inguruko ur- mihiaren ondoan ez zioten inoiz lan egiteari utzi. Historiak erakusten du soldatapeko lanbideetan as- palditik aritu izan direla emakumeak, denetik egin izan dutela etxe barruan zein kanpoan biziraupena ziurtatzeko, etorkizuna eraikitze.

Emakumeen bizitzak, aldiz, ez dira orain gutxira arte hitz larriz idatzitako historiaren lehen planoan jarri. Apurka-apurka, baina, azaleratzen ari dira, Marta Brancas Escartin bezalako historialariek erreskatatuta. Ezaguna da historialari bilbotarrak iraganaren berreskurapenari egindako ekarpena, batez ere emakumeen eta Bilboko historiari. Bere proposamen xarmagarrienetako bat itsasadarrean zehar itsasontziz txango bat egitea da. Horrelako bat egiteko aukerarik izan ez dugun arren, ez da zai- la begirada ameslariko Brancas Escartin ibilguaren ertz batera eta bestera begira imajinatzea, arrastoa



Lerroon gainean, 1900 inguruan Santurtziko portu zaharrean jasotako irudia. Bertan, sardina saltzaileak eguneroko lanean ikus daitezke. © F/ EULALIA ABAITUA. Bilduma Colección Euskal Museo-Bilbao-Museo Vasco

utzi zuten emakumeen istorioak kon- tatzen, nortzuk ziren, zer egin zuten eta zelan bizi ziren kontatzen.

Itsasontzian txangoa egitea ez zen posiblea izan, baina Brancasekin zen- bait solasaldi interesgarri izateko auke- ra sortu zen, itsasadarretik hurbil beti. Moilara hurbiltzearekin batera iraga- neko emakumeez galdetu eta berehala inspiratzen da mugimendu feminista- ko militante historikoa. Edozein aldera begiratuta irudiren bat pizten zaiola dirudi; hitz egiten duen bitartean, erraz imajinatzen ditugu iraganeko emakumeak, euren aurpegi eta jan- tziak ikustera heldu arte. Horrelako une batean, San Antongo zubiaren eta Erriberako azokaren artean, besoa al- txatu eta inguru bat seinalatzen du Brancas Escartinek. Azokaren ondo-on- doan gaude. «Hor kokatzen ziren sardi-

na saltzaileak», dio. Eta esan bezala, irudimenak atoa berreskuratzen ditu saskia buru gainean edo aldakan jarri- ta eramaten zuten sardina saltzaileak. Kanta ezagunak irudikatutako emaku- meak begi aurrean izango bagenitu lez. Askoz gehiago deskubritzeko ataria za- baldu baino ez da egin.

SARDINA SALTZAILE OSPETSUAK

Sardina saltzaileon iruditeri jakin bat badugu sortuta guztiok, baina segurue- nik gutxiago ezagutzen dugu emaku- meon lanbideak hiriarentzat izandako garrantzia. Martxoaren 8aren harira “Bilboko emakumezkoen antzinako lanbideak” izenburupean Udalak 1998an kaleratu zuen lanak datu ugari bildu zituen lanbide zaharrez. Bada, bertan jasotzen denez, 1477an egin zen arrain zaintzaileei espresuki bideratu-



tako lehen udal araudia. Bilbora heltzen ziren sardinak pisatu eta prezio bat jarri behar zietela ezartzen zuen araudiak. Sardinak «auzokideentzat lehendabizi eta kanpokoentzat gero» izan behar zirela ere badio araudiak. «Sardinak Bilboko Udala finantzatu zuen mendeetan zehar», jasotzen du argitalpenak, emakumeon garrantzia agerian utziz.

Auzi bat irabaztea ere lortu zuten arrain saltzaileek, Brancasek gogoratu duenez. 1.510ean izan zen. Moilan zama-lanak oztopatu eta zikintzen zituztela kexu ziren agintariak. Zazpikaleetan sardina salmentarekin kiratsa zabaltzea leporatzen zieten, zikindutakoa garbitzeko eta sardinak saltzeko taula bat jartzeko eskatzen zieten. Akusazioen aurrean ez ziren kikildu. Elkar-tu eta euren lanbidea kontzejuaren au-

Begoña inguruan, Bilbon, 1900. urtearen bueltan hartutako irudia. Bertan emakumeak asto gainean ageri dira, saskiak kargatuta.
© F/ EULALIA ABAITUA. Bilduma Colección Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco

rrean defenditu zuten. Lanbide zaharra aitortua izatea lortzeaz gain, arraina saltzeko aterpeak jartzea ere lortu zuten. Aterpe haietatik, gaur egungo Erriberako azoka ederrera. Saltzaileek kontatzen dute ere leku askotatik heltzen zirela Bilbora arraina saltzera, eta erraztasun handiak ematen zizkietela

Emakumeek Bilboren biziraupenerako funtsezko lanbideak bete dituzte historian zehar. Marta Brancas historialariak nabarmendu bezala, kontuan hartu behar dira bai egindako ekarpenaren garrantzia bai emakume lanon gogortasuna

Emakumeen lanbideok ezagutzeko kontakizuna iraganera egindako bidaia baten modukoa da. Bereziki gogorra da zirgariek eta zamaketariak zituzten lan baldintzak ezagutzea, zama-animalien modura aritu baitziren

elikagaiak bidean zehar ez saltzeko eta «Bilboko merkatua ziurtatzeko».

Errekardariena zen emakume izena zuen beste lanbide garrantzitsu bat. Bilbo harresitura elikagaiak eta bestelako hornidurak sartzea ziurtatzen zuten, eta ez ziren gutxi. Dokumenturen batean ehun emakume inguruko kopurua aipatzen da. Fruta, ogia, arraina eta hegaztiak saltzen zituztela ere jasota dago, baita ilea triskilatuta zutela ere...

ZIRGARIAK ETA ZAMAKETARIAK

Bilbon baserriko produktuak saltzen zituzten baserritarrak askoz ezagunagoak dira, euren irudia ia gaurdaino heldu delako. Baserritarron lanaz, gehienek herrietatik ibilaldi luzeak egin behar izaten zituztela kontatzen du Bilboko Udaren argitalpenak. Zorioneko zirenek asto baten laguntzarekin egiten zuten bidea, baina beste askok ez. Saski beteekin egin behar zuten Bilbora arteko bidaia gogorra.

Itsasadarrari lotutako lanbideen artean, zamaketariena eta zirgariena ziren ikaragarrienetakoak, bai zuten gogortasunagatik bai emakumeei eta zama-animaliei gordetako lanak izateagatik. Bai, itsasontziak kargak lurreratzea eta itsasontziak salgaiz betetzea emakume lana zen. Zamaketariak buru gainean mineralak, bakailaoa, ikatza... garraiatzen zituzten. Pentsa, hain ziren merkantzia astunak ezen bizion behar zirela fardelok emakumeon buru gainera igo ahal izateko.

Ripan eta Uribitarten egiten zituzten zama lanak emakumeek soldata kaskarren truke. Bertako eta kanpoko kronistek harrituta deskribatu zituzten Olabeagan ohikoak ziren irudiak. Ontzi handiek ezin zutenean Bilbon sartu, gabarretan lurreratzen zituzten merkantziak, Brancasek azaldu bezala. Sirga maneiatzen zuten emakumezkoek tiraka hurbiltzen zituzten gabarrak moilara. «Emakumeoz oso idazle ezagunen deskribapen literario itzelak daude», dio historialari bilbotarrak.

Brancasek gehitu duenez, «kaleko emakume pobreei 'zazpi gonazpikokoak' deitzen zieten, zeukaten arropa



guztia jantzita eramaten zutelako, negua ala uda izan». Gogoratu du Elizak emakumezkoek burukoa janzteko agindu zuela, baina batzuek burukorik ere ez zutela. «Burukorik gabeak» deitzen zieten. Askok ilea larru-arrats moztuta eramaten zuten sirgarekin lan egiteko edota zamak buru gainean eramane ahal izateko.

SAN FRANTZISKON, HARRIAK JASOTZEN

1877 eta 1900 artean San Frantzisko auzoa eraiki zen, Brancasek azaldu bezala. Bilboko zabalgunea planifikatu zen garaia zen. Langileria hiriko behealdean pilatu eta burgesia hiriko goialde lauan instalatzea bilatzen zuen erabakiak. «Frantziskanoen komentua zegoen bertan, kaleari izena eman ziona. Gerra Karlistetan eraitsi nahi izan zuten; Mariaren Bihotza egina zegoen dagoeneko, San Frantzisko bera eta Gorte kalea bezala. Komentuko harriak kentzeko ezin zutenez zalditeria sartu, emakumeak erabili zituzten lan horretarako», kontatu du Brancasek. Harria pikatzen ere ibili ziren emakumeak, «horrela egiten baitzen harrikoa egiteko harea».

Itsasadarretik kanpo, hiriaren barnealdean, errotari, labekari eta okin lanak ere egin dituzte besteak beste Bilboko emakumeek historian zehar. Okin ofizioa hiriarekin batera hazi zen. «Ema-

kumeak askotariko lanbideen buruan aritu izan dira», Brancasek azaldu lez. Azpimarratu du emakumeentzako soldatapeko ofizioak industrializazioa heldu baino askoz lehenago zeudela. Izan ere, «emakumeen lanak elikatzen zuen hiria». Ogia elikagai preziatua zela gogoratu du, jende askoren bizirau-pena bermatzen zuen oinarritzko elikagaia. Testuinguru horretan, ogiaren merkatua oso araututa zegoela nabarmendu du. Araututa zegoen ogiak izan behar zuen pisua eta prezioa, baita Bilbo hornitu behar zutela kanpoan saldu beharrean ere. Emakumeek labeetan egiten zuten denbora ere kontrolpean izaten zen, bertan denbora luzez egon zitezen. «Labekariak kriminalizatzeraheldu ziren beharrezkoa zuten baino ore gehiago erabiltzeagatik», zehaztu du Brancasek.

Lana ez zen zama bakarra, agintarien jazarpena ere jasan behar izan zuten emakume langile askok. Errotari, labekari edota okinen lana erakundeen kontrolpean zen. Horrez gain, Elizak zelan jantzi behar zuten ere agintzen zien

Brancasek nabarmendu bezala, historian zeharreko ibilbideak erakusten du emakumeek eskuekin egiten zituzten lan asko egiteko makineria sortu ahala, makinok gidatzen gizonak jarri zituztela nagusiki eta ez emakumeak



Ezkerreko irudian, Uribitarteko kaia. Eskuinaldean, sardina iristea Santurtziko portuan. 1900 eta 1905 artean ateratako irudiak dira.
© F/ EULALIA ABAITUA. Bilduma Colección Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco

Historialari bilbotarrak aipatu duenez, emakumeek ez dute gremio-antolakunde handirik izan Bilbon. Aldiz, XIV., XV. eta XVI. mendeetako udal araudietan argi eta garbi ikusten denez, emakumezkoen gremioak izan, izan ziren.

Bilboko hazkundera elikatu zuten emakumeak gogoratzeko ibilaldietako batean, Somera kaleko serorak etorri zaizkio burura Brancasi. Elkarrekin bizi ziren emakumeak ziren, lan ezberdinez arduratzen zirenak. Trentoko Kontzilioak bukatu zuen serorategiekin. «Landa eremuetan serorategi asko zeuden, baina Zapikaleetan ere ehunka urtez egon ziren», Brancasek zehaztu duenez. Serora batzuk ospitaleetan bizi ziren, eta gaixoak zaintzen zituzten, baina haurrak hezteaz ere arduratzen ziren, etxeetan gaixoak zaintzeaz...

SUA EGITEKO EGURRA BURU GAINEAN

Bazeuden *foguera* bezala ezagututako emakumeak ere. Kontuan hartu behar da etxeetako suak elikatzeeko egurra behar zela lehenik, eta, gerora, ikatza. Buru gainean eramaten zituzten zamak eta egiten zutena ez zen inolaz ere bigarren mailako lana. Gainera, ez ziren etxeak bakarrik sua behar zutenak, artisauek ere suaren energia behar baitzuten. Artisauek eraikinen beheko solairuetan izan ohi zituzten ere lanto-

kiak. Agintariek berehala saiatu ziren emakumeon lana kontrolatzen. Horregatik, gizonei honakoa agindu zieten: emazteak edo neskameak buru gainean eraman zezakeen egurra baino ezin zuen eraman. «Handia izan zen *fogue-ra* eta egur garraiatzaileek pairatu zuten jazarpena. Emakumeei hiribildua erre izana leporatzen zieten. Kontuan hartu behar da egurrezkoa zela dena, eta, logikoa denez, sute handiak izatea oso ohikoa zela», nabarmendu du Brancasek.

Bilboko garapenaz hitz egitearekin batera, meategiak agertzen dira hala-beharrez. Meategiekin batera, Bilbon oso aspalditik datorren auzotasun harremana azaleratu da. Brancasek gogoratu duenez, meategien esplotazioa Bizkaiko foruetan «*lienzo* bidez» egiten zen. Emakume bati, hil arte esplotatu nahi zuen *lienzo* bat ematen zitzaion, eta, bilbotarrak zehaztu duenez, «lur-zatien kasuan aplikatzen zen eskala txikiko neurri hori meategien kasuan ere aplikatzen zen». Ez zen ez garrantzi txikiko jarduera burdinolaz beterik zen Bizkaia bezalako lurralde batean.

Gerra Karlisten ostean foruak desagertuta, industrializazioarekin batera kapitalismo basatia heldu zen: jo eta su lan egiten zuten meategiek trenbideetan ezinbestekoa zen burdina eta ikatza ekoizteko. «Foruak amaituta, Mendizabalen Desamortizazioa etorri zen; pilatutako zorrak ordaintzeko aginduaren ondorioz, Estatuaren eta udalen ondasun komunalen desamortizazioa indarrean jarri zen. Hori horrela, meategiak monarkiaren eskuetatik partikularren eskuetara pasatu ziren. Eremu handien jabe ere egin ziren zenbait partikular. Ondasunak esku gutxi batzuetan kontzentratzen hasi ziren, meategi erraldoiak sortu ziren... Jada aberastuta zeuden jauntxoek makinerian inbertitzeko aukera izan zuten eta ingelesentzat lanean hasi ziren. Horrek, noski, kanpotik Bilbora denetik ekartzea suposatu zuen», kontatu du bilbotarrak.

Zalantzarik ez da, Bilboko itsasadarra merkantzien sarrera eta irteerarako bidea izan da historian zehar. Lanbide



Marta Brancas historialari bilbotarra eta mugimendu feministako kidea, Erriberako Azokaren ondoan.
Marisol RAMIREZ | FOKU

berriak ekarri zituen, eta, lanbideekin batera, «bizimodu eta ideia berriak», Brancasek gogoratu duenez.

MARIA DIAZ DE HARO

Bilbotarrarekin hizketan, Maria Diaz de Haro Bizkaiko Andrea agertu da. Aginte politikoa ez zen emakumeen zeregin nagusia baina bazen aginte politikoan berezko aztarna utzi zuenik eta horietako bat da Maria Diaz de Haro. Itsasadarrarekin eta merkantzien mugimenduarekin zerikusi handia izan zuen, gainera. Jaurerriko maila altueneko agintean izan zen lehen emakumea izan zen, Brancasek nabarmendu lez. Ez zuela «inoren agindupean egon nahi» esan da Maria Diaz de Haroz, eta historialari bilbotarrak argi dauka gogor defendatu zuela jaurerria Castilla eta beste batzuen interesen aurrean.

Bigarren maila batean bizitzeko aukera izan zuen, ardura inguruan zituen gizonei utzita, baina Bilbo eta jaurerria gogor defendatzea hautatu zuen. Hiribilduari birsortze zelula eman zion, eta herritarrei lurretik zein itsasotik sortutako merkantziengatik ordaintzeko beharra kendu zion. Burgostik heldutako merkantziak Urduñatik Bilbora joan

behar ziren, ez beste inora. Kantauriko portu nagusia bilakatu zen Bilbo, Bizkaia Europarekin harreman zuzenean jarritz.

Gure garaietatik hurbilago, meatzari-tza eta burdingintza irakiten zeuden garaian emakumeak batez ere ehungintzan aritu zirela azaldu du Brancas Escartinek, eta elikagaien sektorean ere jarraitu zutela. Gogoratu duenez, lanpostu gehien ematen zituzten jarduerak gizonek betetzen bazituzten ere, euren inguruan lanean jarraitu zuten emakumeek behar ezberdinei erantzunez: meatzarien arropak garbitzea, familiak elikatzea, etxeak mantentzea... Meategietan lan egitera bakarrik zetozen gizonei emandako etxeetan lan egiten zuten emakumeak gogoratu dituzte historialariak; pilaketa handia zuten etxeok antolatzeko ardura zuten. Hori bai, emakumeek meategietan ere egin zuten lan, trenetatik erortzen zen ikatza biltzen, eskarabilero gisa, edo minerala garbitzen adibidez.

Amaierarik gabeko kontakizun betean sartuta, non bazter bakoitzak emakumeen historiaren zati bat islatzen duen, Brancasen ondoan bidaia luzeago bat egiteko nahia pizten da...



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Harpidetu etorkizunera



NOLA LAGUNDU DEZAKET?

Harpidetu zaitez edozein harpidetza motara. Aukera egokiena gutxienez hilean 12 euro emanda laguntzea da, askoz gehiago behar dugun arren. Badakigu, ordea, jende guztiak ez duela egoera bera bizi eta pertsona guztiek ere ez dutela zertan konpromiso bera hartu. Ekarpen oro da beharrezko, eta beti eskertuko dugu zuen babesa.

Bi urteotan egingo duzun ahaleginaren ordainetan kalitatezko zerbitzua emateko lan egingo dugu. Noski, nahi duzunean utzi ahal izango duzu harpidetza bertan behera.

ZEIN DA PLANA?

2019ko ekaina iristerako 10.000 harpidedun gehiago behar ditugu. Milaka herritar solidario horiek behar ditugu bi urte hauetan gure aldamenean GARAREN aurkako lapurretari aurre egin ahal izateko. Denon artean komunikabideen euskal ekosistemaren aniztasuna bermatu beharra daukagu. Gure balioak eta gure proiektuak defendatu beharra daukagu. **Gure herriak behin eta berriro erakutsi du halako bidegabekeriei alternatibak eskaintzeko gaitasuna duela.**

Zein da gure konpromisoa? Internetetik papereraino, baliabide eta plataforma orotan garatuko den proiektu bat gauzatzea, gure jendarteak bizi duen aldaketa adierazi eta bultzatuko duena. Hizkiz, hitzez, ahotsez eta irudiz egingo dugu hori. Kazetaritza zintzo eta konprometituaren bidez egingo dugu.

ZEIN HARPIDETZA AUKERATU?

Interneten irakurtzen baduzu:



L Gazte laguntza
3 euro hilean
36 euro urtean

Gaztea eta soldatarik gabea bazara, L harpidetza prezio murriztuan aukera dezakezu



L Laguntza
6 euro hilean
72 euro urtean

Hau da harpidetzarik merkeena. Egunean 5 Premium eduki irakurri ahal izango dituzu



XL Elkartasuna
12 euro hilean
137 euro urtean

Premium eduki guztiak mugarik gabe irakurtzeko aukera ematen dizu



XXL Elkartasuna
18 euro hilean
205 euro urtean

Harpidetza mota honetan, GARA deskargatu ahal izango duzu PDF formatuan

GARA paperean irakurtzen baduzu:



GARA paperean
50,50 euro hilean
576€ euro urtean

GARA paperean jasoko duzu, XXL harpidetza digitalaz gain



Elkartasun berezia
100 euro hilean
1.200 euro urtean

Horretarako aukera baduzu, hauta ezazu elkartasun berezia, eta laguntza bikoitza emango diguzu.

DEI IEZAGUZU: **943 316 999**

edo bidali **whatsapp** bat zure izenarekin: 649 666 577

Hemen ere harpidetu zaitezke: naiz.eus/harpidetzak



> Gorputzak



GAUR8

Multinazionalen erakusleihotan ageri diren manikiek ezartzen duten edertasun kanonaren aurka, Bilboko zenbait neska gaztek arropa erantzi eta desfile berezi bat eskaini dute asteon Bilboko



erdigunean. Kulero eta bularretakoak bistan, ileorde koloretuak soinean, arrosa koloreko alfonbra zabaldu dute multinazionalen atarian. Protesta horrekin arropa taila zurrunak eta modelo «estereoti-

patuak» kritikatu dituzte. «Egungo sistema heteropatriarkalak edertasun kanon zurrunetan oinarritutako emakume ideala inposatu nahi digu eta kapitalismo basatiaren multinazionalen eredu hori proiektatu eta erreproduzitzen dute», salatu du Ernaik ekimenarekin batera zabaldutako bideoan. Horrek guztiak genero rola indartzen dituela eta emakumezkoen gorputzen sexualizazioa bultzatzen duela salatu du Ernaik, ondorio latzak dituela nabarmenduz: «Neskek pairatzen dituzte anorexia kasuen %90 Euskal Herrian, 9 urterekin hasita». Ernairen ustez, EAJk gidatutako Bilboko Udalak «alfonbra gorria jartzen die nesken bizitzak prekarizatzen dituzten enpresari handiei, aurpegia garbitzeko azaleko mezu feministekin ahoa betetzen duen bitartean».

Ekimena “Euskal Herrian Bizizi” dinamikaren barruan kokatu dute, «prekarietateari ate guztiak ixteko» asmoa duen kanpaina. Gaur Bilbon mobilizazio nazionala deitu dute.



> Matxismoa harmailetan

Realeko eta Athleticen jokalariek Anoetako estadioan jokatu zuten derbia joan den asteburuan. 21.234 herritar izan ziren norgehiagokaren testigu eta zaleak pozik eta gustura irten ziren Anoetatik, bi taldeek bina egin ostean. Harmailetan bizitako giroa sekulakoa izan zela nabarmendu zuten komunikabide gehienek, nesken partide-



tan biltzen den ikusle kopurua ere gorantz doala adieraziz. Hatik, dena ez zen urte izan harmailetan. Olatz Salvador kantautore donostiarra Anoetan bizitakoak jaso ditu Twitterren, futbol zelaian ohikoegiak diren «egoera matxista, arrazista eta homofoboaren adibide» gisa. Batzuen jarrera, lotsagarria eta onartezina.



> Eutanasia

Maribel Tellaetxeren senideek eutanasiaren aldeko milaka sinadura eraman dituzte Kongresu espainolera. Tellaetxe Portugaletekoa da, 75 urte ditu eta alzheimerra dauka. Senideek agertu dutenez, «bizirik hilda» ikusten dute emakumea, gaixotasun latzak sufrimendu handia eragiten diolako. Gainera, Maribel Tellaetxek oso garbi adierazia utzi zuen sufrimendurik gabeko bizitzaren aldeko



bere jarrera. Horregatik, bere etxekoek modu duinean hiltzeko duen eskubidea aldarrikatzen dute.

Alderdi politikoeekin eta beste-lako eragile askorekin bildu dira Tellaetxeren etxekoak, egoeraren latza adierazteko. Eta beren eskaera Kongresu espainolera-ino eraman dute, 180.000 sinaduraren bultzadaz. Kasu honekin eutanasiaren gaia berriro lehen lerroan kokatu da.

> Katalana edo portugaleraz?

Estatu espainolean bizi den Kataluniaren kontrako jarrerak ez du neurrik. Aste honetan whatsapp taldeetan bolo-bolo ibili den elkarrizketa bat da horren adibide. Supermerkatu kate ezagun bateko bezeroa kexu zen lehen espainolez zeuden etiketak orain katalanez jarri omen dituztelako. Ez zuela erabakia ulertzen aipatzen zuen, Andaluziako supermerkatuetan ez zuela zertan katalanak toki-rik behar. Supermerkatu kate ezagunak azkar erantzun zuen



bezzeroaren kexua: «Ez da katalana, portugaleraz da. Laster Portugalen zabalduko ditugu gure supermerkatuak eta horregatik ari gara etiketak portugaleraz ere jartzen».

Pentsatzekoa denez, zer esan handia eman zuen elkarrizketa horrek sareetan; bai bezzeroaren ezjakintasunagatik eta katalanaren kontrako herragatik, eta baita supermerkatu katearen erantzunagatik ere. Eta katalana balitz, zer? Non dago akatsa? Nori egiten dio kalte?



> Ni bezalako panpina

Amy Jandrisevits estatubatuar-rrak panpina pertsonalizatuak egiten ditu; desgaitasunak eta ezaugarri ezohikoak dituztenak asko. Enkarguz egiten dituen panpinek, haurra den bezala islatzen dute, bere ezaugarri bereziekin. Eskuak falta dituztenak, ezaugarri fisiko ezohikoak dituztenak, hatz gutxiago dituztenak, orban nabarmenak



dituztenak... desberdinak dire-lako diskriminatuak sentitzen diren haurrei laguntzea da panpina horien helburua.

Jostailuen industrian ere este-reotipoak pisu handia daukate. Hartara, erakusleihoetan ager-tzen diren panpina perfektuek ez diete mesede handirik egiten desberdin sentitzen diren haur horiei.



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Nitro martxa sartuta


Urte luzez, politika parlamentuetan, eta ez ka-
lean, egiten dela esan digute. Totalitarioa
omen zen kaleko aktibismoa, mobilizazioa eta
eguneroko parte hartze aktiboa aldarrikapen po-
litikoetan. Gero, boterea eta haren pribilegioak
zalantzan jarri izan direnean, politikari profesio-
nalek tinko eta masiboki kalean manifestatzera deitu dituzte
herritarrak behin eta berriro... Gasteiztarrok presente dugu ka-
leak norenak diren zein argi utzi nahi izan duten. Martxoaren 3
triste haren urteurrena hurbil dugu eta txokolate katilukada
baten bueltan eguna oroitzeko gonbita egin du M3moria Gune-
ak. Aste guztian zehar, Madrilen eskuin espainiarrak egin duen
kontzentrazio ez uste bezain arrakastatsuen harira, Gasteiz-
ko alkate izan zen Teodoro Gonzalez de Zaraterekin gogoratu
naiz. Errepublikazale ezkertiarra, 1931n lehenik eta berriro
1936an, Fronte Popularraren sostenguekin, agindu zuen.
Kolpistek hiriaren kontrola hartu eta hilabete gutxira, kartze-
latik aterarazi eta Azazetako mendatean erail zuten.

Badirudi espainiar eskuinak, 1930eko hamarkadan bezala,
azeleragailua zapaldu eta are nitro martxa ere sartu duela. Gi-
roa gaiztotzen ari da eta hurrengo hauteskundeak erradiogra-
fia politiko interesgarria izango dira. Hego Euskal Herrian ere,
gauza asko daude jokoan. Besteren artean, espainiar eskuin
ufadaren eragina. Ikusteko dago jeltzaleek azken hamarkadan
lortutako hegemonia kontserbadorea mantenduko duten edo,
inkestek sinetsarazi nahi diguten moduan, handitu egingo du-
ten. Izan ere, EAJren lidergoak eskuineko boto espainiarra neu-
tralizatzeko joera gero eta handiagoa izan du azken urteotan.

Egin beharreko galdera honakoa dela iruditzen zait: Espai-
niar Gobernuan epe ertainean eskuin handiaren koalizioa
ezartzen bada, zer gertatuko da Euskal Herrian? Zein aldetara
lerratuko da EAJ? Espainian eskuinaren monopolio ideologi-
ko-politikoak desio duen elite ekonomikoarengana? EAJren bo-
terea hain da handia, ezen eta hori ekidin beharreko katastro-
fea den.

Behin hipotesiak plazaratzen hasita, beste agertoki bat ere
posible da. Azkenean espainiar trantsizioko oinarriak pitzat-
zea eta zentro-ezkerreko koalizio batek, eskuinarekiko beldu-
rrak mobilizatuta, Konstituzioaren nolabaiteko eraberritzea
martxan jartzea. Kasu horretan ekidin beharrekoa honakoa
da: euskal herritarron ordezkari hegemonikoa ezin dira izan,
inondik inora, EAJ eta bere ideologia eta praktika kontserba-
dore-neoliberalak.

**Hainbatetan ikusi dugu (1979, 1987, 2011), jendartea
aktibatuta baldin badago, Hego Euskal Herrian sostengu
zabala lortzen dutela politika askatzaile eta demokrati-
koek.** Ezinbestekoak izango dira hemendik eta gutxira, prak-
tika neoliberalak kaltetutako guztiok elkartuko gaituzten
akordio minimoak. Baita oldarraldi kontserbadoreari eran-
tzuteko tinkotasun ideologikoa eta mobilizazioa ere. Jeltzale-
ek beti jotzen dute inguruko haizearen alde. Haize hori pre-
karizatuon, zapalduon, gutxiengotuon, disidenteon... aldera
puztea, lan gogorra izango da. Eta guk ere nitro martxa sar-
tu behar dugu lehenbailehen, eskuinetik aurreratuak izate-
rik ez badugu nahi. •



Ilustrazioa: JONBI EGURZEGI

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Kalaportuko lore hiztunak

Bizkaiko Urtxintxa eskolak sokasaltoan aritzeko abestien letrak berritu ditu, baliotzaileak sustatzeko. Ez dakit hori irakurri genuen arte arreta handirik jartzten ote genion haurrei beti abesten diegun kantari (“Aita, ama, zenbat urte-ekin ezkonduko naiz?”); baina, albistea irakurrita, aldatu beharraren premiaz eztabaidan aritu ginen lehengoan. Batzuen ustez, txikikeriei gehiegizko garrantzia ematen ari gara; beste batzuek, ordea, gus-tura hartu genuen letra eraberritua, eta orain arte kantatutakoak zuzentzen hasteko garaia bazela iritzi genion.

Eztabaidak berak baino gehiago, abestia aldatzeari hutsalkeria zeritzonetako batek erabilitako argudioak eman zidan atentzioa: tira, ez dugu erotu behar, abesti bat da, ez besterik. Eta egia da. Abesti horri arazorik ikusten ez dioten gehienek ez lukete begi onez ikusiko haur bati, arratsaldero, ea noiz ezkonduko den galdetzea, horrek izan behar balu bezala bere bizitzan helburu. Baina sokasaltoan ari garenean, ez gara benetan horrelakorik galdetzen ari. Abestietako galderak, ez dira benetako galderak. Abestietan esaten dena, ez da benetan esaten.

Zentzuzkoa dirudi argudioak. Baina, nago, kontua hori baino korapilatsuagoa dela. Honaino esandakoarekin ados egon denak ere, nik uste, nekez abestuko lioke umeari “Aita, aita, zenbat aldiz jo duzu ama?”, edo “Ene, seme, zenbat ijito hil dituzue?”. Zergatik, baina? Ez lirateke benetako galderak, abestiak lirateke, ez besterik.

Abestietan, edo berdin ipuin eta filmetan, hizkuntza erabiltzen dugunean, ez dugu komunikazio arruntagoan egiten dugun gauza bera egiten. Ez dugu berdin esaten, galdetzen, edo agintzen. Auzi eza-guna da hori fikzioaren ikerketan, eta asko egin eta esan da hori argitzeko.

Fikzioa gezur politak esatea dela entzun izan dut, baina ez da hori horrela. Fikzioan esaten dena ez da egia edo faltsua, beste zerbait da. Errealitatearekiko da zerbait egiazko edo faltsu, eta fikzioan errealitateak ez du askorik inporta. Kalaportu itsasbazterreko herri bat dela ez da ez egia ez gezur; Printze Txikiaren planetako loreak hitz egin dezakeela ez da ez egia ez gezur. Eta, hori, ez Kalaporturik, ez printzerik, ez planeta eta ez lorerik benetan existitzen denik.

Hori badakigu nobela bat irekitzen dugunean, edo zineman esertzen garenean. Badakigu irakurriko duguna, entzungo eta ikusiko ditugunak, ez direla egia. Eta, halere, hunkitu egiten gara, beldurtu edo tristatu, egiazko ez den hori ikusi edo entzutean. Fikziozko nobela edo film batean murgiltzean sentitzen dugunak, ez du fikziozko asko: benetan sentitzen

Abestietan, edo berdin ipuin eta filmetan, hizkuntza erabiltzen dugunean, ez dugu komunikazio arruntagoan egiten dugun gauza bera egiten. Ez dugu berdin esaten, galdetzen, edo agintzen

gara triste, egiazkoa dirudi beldurrak. Harrigarri gerta daiteke hori, alegia benetakoa ez den piztia baten aurrean benetako beldurra sentitzea. Fikziozko obra baten aurrean esertzen garenero onartzen dugun isilpeko hitzarmena dirudi: badakit ez zarela benetako, baina ahaztuko dut hori honek dirauen artean, eta hunkituko naiz benetan.

Ikasi ere, fikzioaren bidez benetako gauzak ikasten ditugula esango nuke. Ez diren lore hiztunei eta Kalaportuei buruzkoak irakurrita, errealitateari buruzko gauza asko ikasi ditugulakoan nago. Baina norbaitek esango lidake, agian, ez dugula erotu behar; fikzioa da, ez besterik. •

Bilboko ICQO Oftalmologia Institutu Kliniko eta Kirurgikoko zuzendari zientifikoa da, oftalmologoa eta kornean espezializatua. Duela gutxi Top Doctors zerrendan Estatu espainoleko 50 mediku onenen zerrendan agertu da.


Kornea transplanteez jardun da GAUR8rekin. Duela mende batetik egiten den transplante zehatza eta zorrotza, teknika arloan aurrerabide handiak izan dituen eta pazientearen bizi kalitatea asko hobetu dezakeena.

Zertan datza kornea transplanteak?

Lehendabizi kornea zer den azalduko dut. Begiaren aurrealdean dagoen egitura da kornea; garden-gardena da, leiho bat bezala, lente moduko bat. Gardena izateaz gain, forma optiko oso zehatza izan behar du ikusmena egokia izan dadin. Kornea transplantearen bitartez, kaltetuta dagoen kornea osasuntsu dagoen kornea batekin ordezkutzen da. Hilda dagoen emaile baten bitartez lortzen da kornea hori.

Zerk kaltetzen du kornea, zergatik hondatzen da?

Arrazoi desberdin eta askotariakoak daude. Traumatismo bat gerta daiteke, zauriren bat, kolperen bat; ultzera baten ondorioz kaltetu daiteke, infekzio bat dela-eta; kornearen forma-anormaltasun progresibo bat gerta daiteke, kerotokono deitzen dena eta normalean pertsona gazteei eragiten die-na. Hala ere, gaur egun arrazoi ohikoena zelulen degenerazioa da. Eta, hori, adinaren ondorioz gertatzen da. Zelulak normalean baino azkarrago



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

hondatzen dira eta korneak gardentasuna galtzen du. Hartara, ezinbestean transplantea egin beharra dago.

Ulertzen da kornea ikusmenaren ezinbesteko osagaia dela, ezta?

Erabat ezinbestekoa. Irudiak erretinara iristeko derrigorrez korneatik pasatu behar du. Horregatik garrantzitsua da kornea perfektua izatea, bai gardentasunez eta baita formaz ere. Horrek huts egiten badu, ikusmena okertzen joaten da. Lesioaren larritasunaren arabera, gehiago edo gutxiago.

Nolakoa izaten da transplantearen prozesua?

Duela hamabost edo hogeitatera arte, kasu guztietan kornea osorik transplantatzen zen, patologia bat edo bestea izan. Kaltetutako kornea osorik kendu eta emailearena osorik jartzen zen.

Gaur egun, berriz, kirurgia egiteko arrazoiaren arabera, kaltetuta dauden geruzak bakarrik ordezkutzen dira. Horrek abantaila handiak ditu; sendatzeko prozesua arinagoa da, kornea errefusatu izateko aukera txikiagoa, ebakuntza osteko botikak gutxitzen dira...

Korneak, beraz, geruza desberdinak dauzka.

Korneak, gutxi gorabehera, milimetro erdiko lodiera dauka. Hartara, geruzaka egin

«Garai batean, kasu guztietan kornea osorik transplantatzen zen. Orain, kasuz kasu, kaltetuta dauden geruzak bakarrik ordezkutzen dira. Mikro-mikro kirurgiari buruz ari gara»

nahi baldin badugu, mikro-mikro kirurgiari buruz ari gara. Gainera, eskuzko teknikak erabiltzen dira. Laserrak eta bestelako erreminta teknologiko batzuk ezin dira erabili era honetako ebakuntzetan.

Horregatik, gaur egun erabiltzen diren teknikak oso-oso zehatzak dira, doitasun zorrotzekoak. Eta derrigorrez ikasketa prozesu bat eskatzen dute aurretik. Alegia, ondo maneiatzen ikasi behar du profesionalak. Pentsa, kornearen atzeko geruza transplantatu behar badugu, 20 mikrako tamainari buruz ari gara, oso-oso finaden zelofan paper baten pareko tamaina. Eta, gainera, ezin dugu ukitu, oso sentikorrak diren eta erraz kaltetzen diren

«Kornea transplanteek jende askoren bizi kalitatea hobetu dute»

zelulak dituelako. Teknika konplexuak erabili behar dira.

Eskuzko teknikak erabili behar dira, beraz. Azken urteotan horiek ere garatuko ziren, noski.

Zalantzarik gabe, asko hobetu dira teknikak. Ikerlari askoren lana dago horren atzean. Bada oftalmologo gazte bat, Gerrit Melles holandarra, egun erabiltzen diren teknika horiek guztiak diseinatu dituena. Zalantzarik gabe kornea transplanteen mundua irauli du oftalmologo horrek. Gero berak diseinatutako teknikak hobetu eta findu dituzte beste batzuek, baina bera da bultzatzailea.

Historiari begira, transplanteetan zaharrenetakoa da kornearena, ezta?

Bai. Dokumentatuta dagoenez, lehen kornea transplantea Vienan egin zen, 1905. urte inguruan, duela mende bat baino gehiago. Pentsatzekoa da hasierako transplante horiek basati samarrak zirela.

Baina egia da aspalditik egiten direla kornea transplanteak. Izan ere, korneak badu abantaila bat: egoera normalean –batzuetan bestelako eritasunak gerta daitezke–, odolik ez da iristen korneara eta, ondorioz, errefusatze indizeak beste organo batzuenak baino txikiagoak dira. Horregatik, ez dira beharrezkoak izaten errefusatzeen kontrako botikak eta horrelakoak.

Transplantea kirurgia anbulatorioaren bidez egiten da.

Bai, kornea transplantea anestesia lokalarekin egiten da. Pazienteak atsedean erlati-boa hartu behar du egun batzuetan eta begia tapatuta

izan behar du 24 orduan bakarrik. Ebakuntza azkarra da. Batzuetan, hain azkar egiten denez, meritua kentzen zaio, berez dena baino errazagoa dirudi. Kirurgia delikatua da, zorrotza profesionalarentzat, baina ebakuntza ondorengo azkarra eta nahiko arina daukana. Ez garai batean bezain astuna, behintzat.

Nola dago emaileen kopurua?

Europar oro har eta EAEn, bereziki, egun ez dago itxaron zerrendarik kornea transplantei dagokionez. Normalean, dagoen eskariari erantzuteko beste emaile izaten dira. Eta hori pozik egoteko modukoa da. EAEn, urtean hirurehun kornea transplante-tik gora egiten dira.

Gehien-gehienak arrakastatsuak?

Hori kasurik kasu aldatu daiteke. Kerotokonoaren kasuan edo adinagatik kaltetutako zelulen kasuan, arrakasta oso handia izaten da. Aldiz, badira tratatzen zailxeagoak diren kasuak; begietako herpesa edo traumatismo konplexuak, adibidez. Horregatik, arrakasta kasuz kasu neurtu behar da.

Pentsatzekoa da arrakasta gertatzen denean gauza handia dela pazientearentzat.

Zalantzarik gabe. Kornea transplanteek jende askoren bizi kalitatea hobetu dute. Gainera, gaur egungo teknikekin errekupeazioa askoz azkaragoa eta hobea da. Pentsa, lehen akaso urtebete egon behar zuen pazienteak puntuekin. Orain, dena askoz azkarragoa eta arinagoa da.

Ba al da prebentzioa egiteko modurik? Egun pantailei be-

gira ematen ditugu orduak eta orduak, horrek kaltetzen al ditu gure begiak?

Iruditzen zait gaur egun jendeak baduela begiak zaintzaren kontzientzia. Azterketa medikoak egiten dira eta orokorrean begiak zaintzen ditugula uste dut.

Pantailei dagokionez, nagusiki lehortasuna eta nekea eragiten dute. Ez dute patologia larriarik sortzen, baina bai beste horiek. Pantailaren aurrean gaudenean ez ditugu begiak hain maiz kliskatzen eta horregatik lehortu eta nekatu egiten dira. Gaur egun gehien erabiltzen den kolirioa negartanta artifizialak dira. Jende guztiak, neurri batean edo bestean, begietako lehortasuna izaten du, bizi dugun garai honen ezaugarri.

Bizitza itxaropena luzatzeak ere ekarriko zituen begietako gaitzak, ezta?

Bai, horrela da. Gaur egun patologia ohikoenak adinari lotutako makulako endekapena eta korneako zelulen endekapena dira. Gero eta urte gehiago bizi, horrelako patologiak gero eta maizago ikusten dira. Gainera, adineko pertsonek gero eta bizitza kalitate handiagoa exijitzen dute; gidatzen segitu nahi dute, telebista ikusten, ordenagailua erabiltzen... eta horregatik ditugu eskaera gehiago.

Edonor izan daiteke kornea emailea?

Printzipioz, bai. Badira salbuespen gutxi batzuk; tumore klase zenbait, gaixotasun infekzioso batzuk, minbizi mota zenbait... Baina hori guztia oso ondo zehaztuta dago. Hil ondoren kornea emaileak izan daitezkeen pertsonen portzentajea oso altua da.

JUAN DURAN DE LA COLINA

OFTALMOLOGOA

Mende bat baino gehiago da Vienan lehendabiziko kornea transplantea egin zenetik. Teknikak hobetu eta zorroztu egin dira geroztik, errekupeazioa samurragoa da orain, baina zehaztasun handiko kirurgia izaten segitzen du.

Amagoia Mujika Telleria



- historia egin duten dokumentuak, kronologiak, grafikoak, datuak eta irudiak

- 216 orrialde, oparo irudiztatuta

- **Gaindegia**-ren kolaborazioarekin
Euskal Herria 2018 Erradiografia sozioekonomikoa
Demografia, Ekonomia eta Gizartea



Hilaren **23** eta **24**an,
larunbat eta igandean, kioskoetan

Harpidedunentzako
eskaintza berezia
8,95€

11,95€
soilik

GARA

Erreserbatu zure alea astearteko (otsailak 19) 15:00ak baino lehen 94 424 55 56 telefonoan (9:00-15:00) edo igorri dizugun e-mailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu, bidalketa gasturik gabe.

Lanaren prezioa

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Ikasiz gero, lan munduan arrakasta ziurtatuta izango genuela sartu ziguten buruan, institutuko eta batxilergoko garaietan. Mundu laboralean muturra sartzeko bidea praktikak egitea zela ulertu genuen. Praktikak, teorian, ofizio bat ikasteko baliatu beharreko lan aldia dira; baina enpresa bati baino gehiagori datozkio ezin hobeto, beste edozein langilerena baino soldata baxuagoarekin lan bera egingo duen norbait kontratatzeko.

Badirudi batzuk ohartu direla larrialdi egoera iraultzeko beharra dagoela, gazte-

ek bizi proiektu propiorako atea irekiko badute, prekaritateari itxi egin beharko diotela. Hala aldarrikatuko du Ernaik, gaur arratsalderako Bilbon antolatutako mobilizazioan.

Izan ere, ustez, ikasketen eta praktiken eskailerak igota, lan munduan baldintza hobetan tokia topatu behar genuelakoan, krisialdia etorri zela kontatu ziguten. Ondorioz, prekaritatean eta esplotazioan oinarritutako edozein lan edukita ere, ezin geniola uko egin sinetsarazi ziguten, arduragabea izatea dela aisialdirako denbora ere

oso-osorik xurgatzen digun lanari uko egitea.

Ohitu egin ginen, baldintza negargarrietan izan arren, eta lana edukitzeagatik zortekoak ginela ulertu genuen. Goizean garaiz etxetik irten eta iluntzean noiz itzuliko ginen ez jakitean, proiektuarekiko inplikazioa genuela uste genuen, ez esplotatuta geundela. Lanik gabe edo prekarioago zeuden lagunak alboan ikusita, iruditu zitzaigun ez geundela kexatzeko moduan. Eta sistemak irauteko behar dituen ezinbesteko konplize bilakatu gintuen, lana behar genuelako. •

Logofobia

Joxean Agirre

Ingurukoei gehiegitan kontatu diet gaztetan hitz egiten ez zuen neska bat ezagutu nuela, Zarauzko malekoiari buelta osoa eman arren, bizpahiru “bai” eta “ez” bakarrik esaten zituena. Ezintasun sentimendua eragiten zidan egoerak orduan, baina gerora askotan egiten nuen amets neska horrekin.

Lanean hiru aldiz sentitu naiz gaizki elkarrizketa baten erdian eta hiruretan gehiegi hitz egiten zuen jendearekin izan da. Kolpetik gaixotzen hasten nintzen, izerdi larria ateratzen zitzaidan eta, berriro erredakziora itzultzen nintzelarik, lankideek ea zer gertatzen zitzaidan galdetzen zidaten erabat zurbil nenguelako.

Iaz edo orain urte bi euskarazko eleberrri bat atera zen pertsonaiak etengabe

hizketan zituena. Igande arratsalde batez irakurtzen erdi parean nintzela gaixotzen hasi nintzen eta bainugelara joan behar izan nuen ispiluan ea zurbiltzen ari ote nintzen ikustera.

Euskal Telebistan bertan luma pixka bat edo asko duen mutil horietako bat hitz eta pitz agertzen den bakoitzean, katez aldatzen dut, ez lumadunen kontra ezer dudalako, arnasa hartzen ez ditzatela uzten baizik. Irratian ere hitz-jario porrokatu bat egokitzen bazait, “Ufa! Kita, kita!” esan, itzali eta neure pentsamendu bakanetara itzultzen naiz.

Oraindik orain hogeita bost urtean ikusi ez nuen lankide batekin gelditu nintzen bazkaltzeko. Etxera itzuli eta nire lagunarekin zer moduz galdetu zi-

datenean, «gaizki» erantzun nien, hiru bat ordu eman baikenituen isildu gabe. Elkarri mirespen puntu bat diogu eta hogeita bost urtetako gorabehera guziak kontatu nahi izan genituen. Zertarako?

Esan gutxi eta asko egiten zuten militanteak miresten nituen lehen. Politikari hitz-totelak gehiago gustatzen zaizkit orain.

Gehiegi hitz egiten duen jendea gaizki erortzen zait. Norbaitek aurpegitik hurbilegi hitz egiten badit gorrotatzera iritsi naiteke. Hitza ez da existituko baina logofobia dudala uste dut. Psikologoren bati interesatzen bazaio, kontatzen dut. Baina ez dut terapiarik nahi. Eskerrik asko. Eta bukatzera noa. Gehiegi hitz egiten ari naiz. •

ESPRESIONISMO GARBIA

Miguel Gonzalez de San Roman, pintatzen hasi baino lehenagotik hasten den artea

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Urte dezente eman ditu Gasteizen erakusketa-rik egin gabe. «Haste-ko, aretorik ez dagoelako», dio martxoaren 30era arte Talka galerian ikusgai dituen obrek inguratuta. Duela bi aste inauguratu zuen Miguel Gonzalez de San Roman pintore gasteizarrak erakusketa, bere ibilbidean landu duen espresionismo abstraktuaren bilakaeraren eta 40 urte baino gehiagoan lortu duen zigilu nabarmenaren adierazgarri.

Erakusketaren izena “Auto-rretratua” da, horren kartelera-ko propio egin zuen lanetik hartuta. Paper gaineko marrazki-pintura da, pintzelez egina. Autorretratuarekin batera, badira beste hiru koadro figuratibo, artearen gainerako genero klasikoen lagin bana: biluzia, natura hila eta paisaia. Jolas bat da, jendeak ikus dezan pintura abstraktua egiten dutenek ere badakitela marrazten. «Batzuek nire koadroak ikustean pentsatzen dute: ‘ez dut tutik ulertzen, eta egileak ez du ideiarik ere’».

TEKNIKA

San Romanek berebiziko garrantzia ematen dio teknikari. Dioenez, pintore onak teknika ona du. «Koadro on batek lan-keta behar du, sukalde piktorkoa esaten zaion hori». Berak ehun edo marmol morteroak erabiltzen ditu, eta pintura, fresko erara, mortero barrura sartzen du pintatzean. Maiz grabatu egiten du mortero gainean. Teknika horiekin akrilikohutsez pintatutako koadro batek ez duen indarra lortzen duela dio, eta indar hori prestatetan eta materialen erabileran dagoela. «Horretarako denbora

Hilaren 2an inauguratu zuen Gasteizko Talka galerian bere azken obren erakusketa, martxoaren 30era arte ikusgai egongo dena. Espresionismo abstraktuan kokatua, bere obrak keinuaren eta geometriaren konbinaketa garatuz zigilu propio nabarmena lortu du. Luze eta ezin abegitsuago hitz egin du Miguel Gonzalez de San Roman pintore gasteizarrak GAUR8rekin.



behar da, eta estilo propioa, bilaketa lanaren ondorio».

Nabari zaio irakaskuntzan jardun eta hamaika hitzalditan trebatu duela bere diskurtsoa. Kate-dra atera ostean bost urtez jardun zuen unibertsitatean, eta beste bostez orain aspaldi ez dela arte, batxilergo artistikoan. «Oso gustura, ikasi nahi duen jendearekin, benetan interesatzen zaion jendearekin». Jende asko joaten da bere obra ikustera, baita bertan ematen

dituen hitzaldietara ere. Artearen historiaz hitz egiten du, baita horrelako koadro bat ulertze-ra nola iritsi azaldu ere.

Bere lanak jendearentzat eskuragarri izan daitezen saiatzen da; horrenbestez, bere pintura ez omen da oso garestia. «Jakina, koadro handiak berez garestiak dira, denbora eta lan asko daukate, eta hor paisaia emozional bat sortzen duzu, baina obra txikiagoak edozeinek erosteko modukoak dira».

Koadro txikiak beretzat «poema bat bezalakoak dira, haiku bat bezalakoak».

San Romanen pinturak keinuaren eta geografiaren konbinaketa garatu du. Barne bulkada eta arrazionalizazioa. Berehala erakarri zion trazua- ren, adierazpen pertsonalaren ideiak. «Zuk egiten baduzu koadro figuratibo bat, zu eta koadroa zarete, baina keinu-pintura egiten baduzu, zeu zara koadroa, zure kaligrafia». Tra-

zuz pintatzen du, baina ez dira trazuz irrazionalak, baizik eta berak nahi duen lekuan eta nahi duen moduan antolatutakoak; esate baterako, figura geometriko ireki bat eta bertan trazua. «Niri geometria horrek asko mugatzen ninduen, eta joan naiz hori apurtzen, formetan deskonposatu arte». Orain bere formak irekiagoak, abstraktuagoak dira.

«Abstraktuek ez dute istoriorik kontatzen, figuratiboek ez bezala, eurak dira istorioa», dio. Komunikazio gutxiago omen dago euren pinturan. Behar bada horregatik, oso gustukoa izan du beti diseinua ere. Beharrezko arte modua dela dio. «Pintura oso norberaren kontua da, oso introspektiboa, komunikazio elementu gutxi ditzuzu, estudioan ematen duzu egun osoa eta ia ez duzu jendearekin harremanik. Diseinua, berriz, jendeak eskatzen duen zerbait da, zure irudiarekin komunikazio bisualean eragiten duzu, jendearengana errazago iristen da eta baliagarriagoa da». Hala ere, dioenez, diseinuak ez du benetako balio estetikorik. Balio hori mundu berdingabe bat sortzen den obran dago, transzenditzeko asmoa duen horretan. Zigilu pertsonal bat lortzen duena.

HIRU ARDATZ

Hiru ardatz ditu San Romanen pinturak. Bat, trazua- ren ideari jarraituta, keinu kaligrafikoa. Bigarrena, kolore eremuak, kolore garbiko espazioak, haren pintura oso garbia baita, eta harmoniatsua, orekatua. Ikusleak gustura sentiaraztea bilatzen du. Kolore lauak erabiltzen ditu, nahastu gabe, intentsu-agoak baitira. Hirugarren ardatza ekialdeko pinturaren eragina da. Gustuko ditu pintzel txinatarrak, zabaltzen diren ho-

riek, hasierako formara bihurtzen ez direnak. Zaila da horiekin pintatzea, baina ideograma japoniarretan bezala hutsunak uzten dituzte, berak nahi duen moduan.

MATERIALEN ERABILERA

Horrekin batera, materialekiko atxikimendua ere berebiziko garrantzia du San Romanentzat. Pintatu baino lehenagoko momentuari garrantzia handia ematen dio. Japoniarrek erri-tualari ematen dioten garrantzi bera ematen dio berak pintatu aurreko prestaketari. Denak harmonian egon behar duela dio, materialetatik hasita, eta bere koadroek batzuetan oso basak eman badezakete ere, guztiz harmonikoak direla dio.

Ontzi polit batean prestatzen du pintura, eta «ura eta pigmentua botatzen dituzunean, plater horretan geratzen dena liluragarria da». Prestaketa lan horretan laguntzako bazkari bat prestatzen ari dela dirudie-la dio. Tresna horien argazkiak egiten ditu, «argazki politak dira». Eta kolorea aldatzen duenean, platera garbitzen du, beti denak garbi egon behar du.

GALERIAK ETA INSTITUZIOAK

Dioenez, Talka galeria *rara avis* bat da. «Beharrezkoa da, instituzioek beren lan ildo propioa baitute eta egiten dutena oso mugatua baita». Instituzioen arte leku bakarra Artium dela dio, «eta transzenditu nahi hori dela-eta, ez du euskal pintura edo eskultura laguntzen, euskal artisten oso erakusketa gutxi egin dira Artiumen urte askoan. Niri zerbait erosi didate, baina ez didate inoiz deitu. On-do datorkit erostea, jakina, baina erakustea interesatzen zait».

Izan ere, ez dira galeriak sortzen; aitzitik, itxi egiten dira. Ferietan saltzen omen da, bai-



Aurreko orrialdean, Miguel Gonzalez de San Roman, bere koadro baten parean. Goian, pintore gasteiztarra, asteazkenean Talka galerian egin zuen hitzaldia hasi baino lehen.

Endika PORTILLO | FOKU



na garestia dira, eta laguntzak kanpoko ferietarako baino ez dira. «Bizitza osoa daramagunok, halako izena egin dugunok, kostata erakusten dugu, baina orain hasten direnek ez dute inolako aukerarik. Ferietara joateko hara doan galeria bat

behar duzu, eta onena litzateke zure herriko galeria izatea».

Gorka Basterretxeak zabaldu duen galeriak sekulako garrantzia duela dio, horrelako lekuek bildumazaletasuna sustatzen dutelako, saltzeko gauza diren gune bakarrak dira, instituzioe-

tako erakusketetan ezin baita saldu. Kontua ez omen da saltzea bakarrik, ordea: «Ez zaie bururatu ere egin euskal artisten erakusketa bat antolatzea lekuren batera eramateko, promozionatzeko. Ez baduzu zeure lurreko kultura sustatzen...».

Bere ikasle izandako batzuekin topo egin izan duela dio, behin Arte Ederrak bukatuta, eta pena ematen diotela, bera hasi zeneko garaia gogoratuta. «Guk urrezko aroa bizi izan genuen, galeria asko zegoen, instituzioen inplikazio handiagoa, edonon erakuts zenezakeen».

Madrilen hasi zen ikasten, baina gero Bilboko Arte Ederretako Eskolara joan zen: «Bilboko Bauhausen eskola txiki bat bezalakoa zen, han ematen genuen egun osoa». Bilboko eskola hartan zorte handia izan zutela dio. «Etorri ziren irakasleak kataluniarrak ziren, nahikoa modernoak, eta ez zuten figurazioarekiko interes handirik; orduan, abstraktua egiten hasi ginen». Sari batzuk irabazi zituen garai hartan, nahiz eta berehala utzi zion lanak sarietara aurkezteari.

Mihisea zuri dagoela, «zer egingo dut?» pentsatu beharrean, «zerbait egiteko aukera daukat» pentsatu beharra dagoela uste du. Eta berak ondo asko erakutsi du aukera horiek baliatzen jakin duela.



Nestor Basterretxearen erakusketaren inaugurazioa. Juanan RUIZ | FOKU

infraganti GORKA BASTERRETXEA

Aitaren itzala luze eta trinkoa da. Ez du inolako zama, ordea; aitzitik, polita iruditzen zaio itzal horrek bere lana erraztea, aitik obra ikaragarria baino askoz gehiago utzi zuen seinale. Haren itzalpean ezagutu zuen artearen mundua, haren itzalpean jarraitzen du mundu horretan Gorka Basterretxea artezale ausartak, Gasteizko Talka galeriatik.

Ez da ohikoa Gasteizen arte galeria bat zabaltzea. Aitzitik, ohikoa izan da galeriak ixtea, denak desagertu arte. Horrenbestez, ausarta da Gorka Basterretxearen

apustua. Talka galerian ikusgai dauden pinturen egile Miguel Gonzalez de San Romanek dienez, gaur egun ez da erraza galeria bat izatea, eta meritu itzela aitortzen dio Basterretxeari.

80ko hamarkadan etorri zen Gorka Gasteizera. Hondarri-

bian, euskara ikastera hara joandako neska gasteiztar bat ezagutu zuen, eta zenbait urtez tarteka Gasteizen eta Hondarribian ibili ondoren, Arabako hiriburuan gelditu ziren, batez ere lan kontuak zirela-eta. «Eta hemen, oso pozik», dio. Hori bai, Hondarribira joaten denean «babazorroa» da eta Gasteizen, berriz, «bikingoa».

Txintxu San Martinekin batera 17 edo 18 urte eman zituen Zuloa liburu-dendan. Komikia da bertako berezitasun nagusia, baina baita arteak eta kultura oro har. Betan dagoen aretoan hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak egiten dituzte, eta noizbehinka arte erakusketak ere bai. Beraz, Gorkak badu horrelako guneak kudeatzeko moduko eskarmentua. Duela urtebete pasatxo GAUR8k biokin hitz egin zuenean, Gorkari proiektu bat zebilkion buruan, eta joan den maiatzean Talka galeriako ateak zabaldu zituen.

Arte mundua txiki-txikitatik du ezaguna, Nestor Basterretxearen seme izanik, «askotan tokatu zaigu galerietara joatea, erakusketak prestatzea, eta mundu hori nahiko gertu izan dugu beti». Horretaz pentsatzen hasi eta arte galeria zabaltzea erabaki zuen, Gasteizen horrelakorik ez zegoelako. Badaude bestelako ekitaldiak antolatzen dituzten eta arte aretoen funtzioa betetzen duten batzuk, baina ez arte galeriarik. Bestetik, familiak badu aitaren bilduma txiki bat eta funts hori beste «aitzakia» bat izan zela dio, horrekin hasteko. Aitzakia indartsua, inondik ere.

LEHENENGOA, AITARENA

Aitaren zenbait obrak osatu zuten lehenengo erakusketa, joan den maiatzean inauguratua. Ikur gisa, eta Talkaren ildo sei-nalatuz, artista bermeotarraren

“Lau puntu kardinal” eskultura erabili zuen, «bera oso diziplina anitzekoa baitzen». Izan ere, zinema, pintura, eskultura, marrazkia eta diseinu industriala jorratu zituen, besteak beste.

Ikusgarria izan zen, jakina. Erakusketa zabalik egon zen hilabeteetan, film bat ematen zuten astean behin, aitaren film bat, hain zuzen, eta harekin batera, sorpresaren bat. Esate baterako, “Ama Lur” filma eman zutenean, film horretan agertzen den kantautore batek abesti batzuk eskaini zituen galerian; edo “Pelotari” eman zutenean, Ogeta txapelduna agertzen denez, pilotari arabarraren semeak hitz batzuk eskaini zituen proiektzioaren egunean.

Hasieratik argi izan du arte garaikidea izango zela galeriaren esparrua, eta bere erakusketak «garaia baten eta sentitzeko modu baten isla». Hartara, aitarenaren ostean, beste hiru artista ezagunen erakusketa antolatu zuen Carmelo Ortiz de Elgea eta Juan Mieg pintore gasteiztarren eta Jose Ramon Anda eskultore nafarraren obrekin. Inaugurazioan Ruper Ordorika izan zen, hiru artistei abesti bana eskaintzeko. Izan ere, Juan Miegek erakusketaren berri eman zionean, bertan abestea eskaini zion. Gorka berak hiru artista horiei erakusketa egitea proposatu zienean, berehala baietza jaso zuela dio, eta berarentzat oso gogobetegarria dela, Ortiz de Elgeak eta Miegek aitarekin harreman handia izanda, gauza ederrak esan baitzizkioten hari buruz. Jose Ramon Andak ere esan zion hasi zenean, hogeitetsurekin, aitaren estudioan izan zela eta oso esku zabala zela. «Eta egia da», dio Gorkak, bere aitik obrak gainera utzi dituen harremanez eta haren izaeraz eta portaeraz harro. Jende



Gorka Basterretxea Talka galerian, asteon. Endika PORTILLO | FOKU

askorekin gertatu zaiola dio aitaren arrasto hori sumatzea.

Hiru artista horien lanak Talkan ikusgai zeudela, Jose Ramon Andak aurten Donostian erakusketa antologiko bat egiteko proposamena jaso zuela dio Gorkak pozarren.

Sortzaile berriak ere bai

Batez ere hemengo artistei tartea egitea da Gorkaren asmoa. Nestor Basterretxea, Ortiz de Elgea, Mieg eta horrelako izenak galeriara eramateko aukera izatea zorte handia da, «aitari esker ezagun ditut, gure etxean izan dira eta errazago da haiekin harremanetan jartzea». Beste alde batetik, oso indartsu hasteko aukera ere bazen. Baina gazteei, sortzaile berriei ere tarte bat egin nahi die. Proiektuaren asmo garrantzitsua da

gazteen lana ezagutaraztea. Ez da asmo hutsa, ordea. Talkako hirugarren erakusketa zortzi artista gaztek osatu zuten, pintoreak eta beren artelanak egiteko argazkia tresna gisa erabiltzen dutenak: Imanol Marrodan, Anabel Quincoces, Miriam Isasi, Maria Hernandez, Ivan Urarte, Ibon Saez de Olazagoitia, Txaro Arrazola eta Zaloa Ipiña. Erakusketa ederra osatu zuten.

Orain, martxoaren 30era arte ikusgai dagoen erakusketa, Miguel Gonzalez de San Romane-

Aitaren zenbait obrak osatu zuen lehenengo erakusketa. Ikur gisa, eta Talkaren ildoak seinalatuz, «Lau puntu kardinal» eskultura jarri zuten, «bera oso diziplina anitzekoa baitzen»

Gazteei, sortzaile berriei ere tarte bat egin nahi die. Gazteak ezagutaraztea proiektuaren asmo garrantzitsua da, eta dagoeneko zortzi artista hasiberri eraman ditu Basterretxeak Talkara

na, diziplina bakarrekoa da, baina aurreikusita daukan hurrengoan, pintore baten eta eskultore baten lanak izango dira. Rafa Lafuente pintore

gasteiztarra 60ko hamarkadan Orain taldeko kide izan zen Ortiz de Elgea eta Mieg bezala, noiz eta gainerako euskal lurraldetan bezala Araban ere euskal artea aldarrikatze-

ko beharra sortu zenean. Gorka haren semearekin harremanetan jarri eta aitaren obra berreskuratzea proposatu zion. Harekin batera Ernesto Knör

eskultorearen obra erakutsiko dute. «Oso garbia, geometrikoa», dio Gorkak. Lafuenteren azken lanak ere hala iruditzen zaizkio, «garbiak, oso estrukturalak, geometrikoak», eta pentsatu zuen bien lanen artean «elkarrizketa» interesgarria sortu litekeela. Eskultorea eta pintorearen semea harremanetan jarri zituen Gorkak eta oso ideia polita iruditu zitzaion.

Talka galeriak museoekin eta beste eragileekiko harremanak eta lankidetzak ere sustatu nahi ditu. Dagoeneko ZAS Kultur Espazioarekin batera hasi dira hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak ere antolatzen, Artgia Sorgunearekin edo Baratzarte eszenikoen aretoarekin hitz egin du... Egunotan, Miguel Gonzalez de San Romanen erakusketa dela-eta, pintore gasteiztar horrek hitzaldiak eskaintzen dizkie Arte Eskolako ikasleei eta gizarte etxeetan egiten diren arte tailerretan parte hartzen dutenei.

Talka

Hurrengo erakusketa ez ezik, besteren bat gehiago ere aurreikusita dauka. Ez, du, beraz, lanik falta, «baina saldu ere egin beharra dago».

Ez gunden Gorka utzi nahi galeriaren izenaz galdetu gabe. Arte garaikidea eta edozein garaitakoa sortzean ordura arteko artearekin halako talka bat gertatu zela dio, hau da, dagoenaren eta sortzen den berriaren arteko talka islatzen duela izenak. «Klasikoak berriak izan ziren beren garaian, Velazquez, Goya...». Eta, dioenez, arteak talka horien bidez egiten du aurrera.

Horra, beraz, Gorka Basterretxearen ekarpena, haren Talka, arteak aurrera egin dezan. •

Xabier Izaga Gonzalez



Aurrera neskak,
baina nora?

Baina goizean goizeko elkarriket-
tak nire onera ekarri nau segituan.
egunerokotasuna horrelakoa ez de-
lako. Futboleak jokatzen duten ala-
ben gurasook ongi dakigu berdinta-
suna oso urruti dagoela: bidaiak,
ekipamenduak, soldatak... eta, noski,
txikiak direnean non entrenatzen
duten, non jokatzeo aukera duten
helduak direnean, zenbaterainoko
garrantzia ematen dieten klubek...

Nesken kirolak ez du zertan mutilena eredu izan: beste zerbait sor daiteke.

Ion URBE | FOKU

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



ARQUÉ. ARQ-0384_22(1). GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

ELURTEA GASTEIZEN, 1958AN

1957 elur urtea izan zen Euskal Herrian. Urtarrilaren 15ean, metro erdiko elurra zegoen Gasteizko kaleetan eta zero azpitik 19 graduko tenperatura. Horren ondorioz, garraioa asko korapilatu zen eta esnea eta ogia bezalako oinarritzko produktuak banatzea kasik ezinezkoa bihurtu zen. Hurrengo urtean, 1958an, elurra erruz egin zuen urtarrilean eta otsailean. Hartara, urtarril erdialdean Nafarroako portu guztiak itxi egin behar izan zituzten. 1963. urtean, elur sasoian Gasteizen tenperatura zero azpitik 21 graduraino jaitsi zen. 70eko hamarkada hasieran ere antzeko tenperaturak jaso ziren.

Goian ageri den argazkia Gasteizen egina dago, 1958. urtean, Dato kalean zehazki. ARQUÉ firmak egina da, Federico Arozenak eta Gregorio Querejazuk sortua eta 1956tik 1975era bitartean martxan egon zena. EFE agentziaren eta "El Pensamiento Alavés" eta "El Correo" egunkarien kolaboratzaile ere izan ziren, baita tokiko aldizkari ugariak ere.

www.korrika.eus



Izan korrika laguntzailea

Klika KORRIKA! 12 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu: AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta txartelaren abantailak eskuratuko dituzu.



Lortu txartela
AEKren euskaltegietan eta
www.korrika.eus webgunean

